

Jose Manuel Etxeitaren (1842-1915) nortasunaren analisisa, bere gutunen bidez

(Analysis of the personality of Jose Manuel Etxeita (1842-1915) carried out by means of a study of his letters)

Kortazar Billelabeitia, Jon

Eusko Ikaskuntza. M^a Díaz de Haro, 11. 48013 Bilbo

BIBLID [0212-7016 (2008), 53: 2; 475-505]

Lan honen bidez, nire helburua, Jose Manuel Etxeitaren alde ezezaguna argitara eman nahi izan dut, hau da, Jose Manuel Etxeitak enpresari bezala izan zuen ihardueraz. Jose Manuel Etxeita, Manilako alkate (1898.erarte) izan ostean; enpresa-iharduerara emana izan zen, hainbat enpresatan, adibidez Manilako Itsas Konpainian, zuen partehartzearen bitartez. Lan honetarako erabili izan dudana informazio iturri nagusia, Jose Manuel Etxeitaren 1900 eta 1905.aren arteko gutuneria izan da.

Giltza-Hitzak: Jose Manuel Etxeita. Manila. Manilako Itsas Konpainia. Enpresaria. Alkatea. Gutunak. Mundaka. Koloniak.

El objetivo que he perseguido con este trabajo es el de divulgar el aspecto más desconocido de Jose Manuel Etxeita, esto es, su actividad como empresario. Jose Manuel Etxeita, después de ser alcalde de Manila (hasta 1898), se dedicó a la actividad empresarial mediante su participación en diversas compañías, entre ellas la Compañía Marítima de Manila. La principal fuente de información utilizada para este trabajo ha sido la correspondencia de Jose Manuel Etxeita entre 1900 y 1905.

Palabras Clave: Jose Manuel Etxeita. Manila. Compañía Marítima de Manila. Empresario. Alcalde. Cartas. Mundaka. Colonias.

Ce travail vise la divulgation de l'aspect le plus ignoré de Jose Manuel Etxeita : son activité comme industriel. Jose Manuel Etxeita, après avoir été Maire de Manille (jusqu'en 1898), s'est consacré aux affaires en participant à diverses compagnies, telles que notamment la Compagnie Maritime de Manille. La principale source d'information utilisée pour ce travail est la correspondance de Jose Manuel Etxeita entre 1900 et 1905.

Mots Clé : Jose Manuel Etxeita. Manille. Compagnie Maritime de Manille. Entreprise. Maire. Lettres. Mundaka. Colonies.

Jose Manuel Etxeitaren gutuneriaren parte bat, 1900.etik 1905.era doana ikertu dut, eta gutuneria honen bitartez, bere nortasunaren gaineko ezaugarri nagusiak analizatu ditut. Izan ere, gutuneriaren zati honetan, 1900.etik 1905.era doan garaian, bere karakterrari buruzko izpi batzuk azaltzen dira. Hala ere, segmentu kronologiko hau, Etxeita jadanik, Manilatik Mundakara itzuli osteko garaia dagokio, beraz, jada bere funtzioetatik aldendutako garaia.

Jose Manuel Etxeitak, Manilan benetan garrantzitsua zen postu bat izan zuen, hau da, Manilako alkate izan zen. Baina, bere izena, gaur egun argitaraturiko Filipinetako espainiar kolonizazioari buruzko historia liburuetan, ez da maiz agertzen. Izan ere, Filipinetan badirudi Manilako alkateak baino, bertako gobernari orokorrak izaten zituela botere efektiboa eta autoritatea. Manila Filipinetako hiririk handiena izanik (Filipinetako hiriburua da gaur egun), orduko Filipinetako bizitzan paper handia zuela ezin dugu uka. Ordez-kari kolonial gehienek bezala (azken finean kolonialismoa eta inperialismoa merkatu berrien bilatzeak eta lorpenak motibatzen dituzte), bertan zuen botere politikoa, bere ondasunen probetxurako erabiltzen saiatzen zen. Izan ere, zuen postuak, Espainiako Gobernuko pertsonekin harremana izateko aukera eman zion. Bestalde, Filipinak itsaso-kolonia bat izanik, eta Jose Manuel Etxeitak Itsas Konpainia batetan akzioak izatean; Manilako alkate postua Konpainia horren alde baliatu zuela pentsatzea, erraza da oso. Bere gutunetan, askotan azaltzen dira Konpainia honi buruzko berriak eta gorabeherak. Modu berean, administrazioari lotutako kontaktuez mintzatu garenez, aipatu behar dugu, garaiko Guda Ministro zen Weylerrekin afera bat izan zuela Etxeitak. Izan ere Weyler jeneralak Etxeitaren Konpainiaren zerbitzu batzuk eskatu zituen, eta 1901.ean, Etxeitak zorrak kitatzeko eskatzen dizkio jeneralari. Baina Weyler ez zen bere kontaktu bakarra administrazioan, izan ere, bere zenbait gutunetan, Madrileko abokatuengana edota influentziadun pertsonengana jotzen du, Estatuarengandik mesedeak lortzekotan.

Mundakan dagoelarik, ez da hau Etxeitaren aktibitate politiko-enpresariaren momenturik gorena. Izan ere, momentutan nabari da famili aferen gainean dagoela, adibidez bere bi loben heziketa gastuen gainean, edota bere etxerako neskame bat kontratatzean. Azken gutun batzuetan (1904. eta 1905.ean) etxe berri bat eraikitzean daude bere pentsamenduak.

Etxeitaren gutun asko, bere zaletasun bati dedikatzen dizkio: itsasontziei. Gutunak irakurriz, ikusten da Etxeita oraindik Bilboko Kapitain Formatze Eskolan inplikaturik dagoela, baita Itsas Eskoletako eskuliburu batzuk irakurtzen dituela, Itsas Liga batetako bazkide, eta itsas aldizkari batzuetako irakurle dela.

Azkenik kontutan izan behar dugu, Etxeitak, Gernikako gizon batekin harremana zuela, Pedro P. de Areitiorekin, hain zuzen ere, gizon honek testamentu batzuekin laguntzeko eskatzen dio Etxeitari. Horrek, Etxeita zenbait pertsonentzat nahiko gizon errespetagarria zela aditzera ematen du.

Laburpen honetan, Etxeitak konfiantza gehien nortzuegan duen esan behar dugu. Hauetako batzuk, Liverpooleko Juan Bautista de Ojinaga eta Juan Bautista de Larrinaga dira, edo bere koinatu Raimundo de Abaroa. Bestalde Manilarekin

kontaktuan jartzen dion laguna Juan T. McLeod da. Hauek dira gutun honetan behin eta berriz azaltzen diren izenak, bai negozioengatik zein famili edota lagun loturengatik. Beraz atzeman dezakegu Etxeitararen lagun minak izan zirela. Halere argitu beharra dago, ez direla gutuneria honetan, Etxeitak laguntzat dituen bakarrak, beste batzuk ere badaudela.

JOSE MANUEL ETXEITA ETA BERE FAMILIA

Jose Manuel Etxeitararen gutuneriaren araber, familiari buruzko gutunak egiteko bere familia, zenbait multzotan bana dezakegu. Bata Garaiko familia da. Garai Bizkaiko herri txiki bat da Urdaibai, Durangaldea eskualdeen artean dagoena. Jose Manuel Etxeitararen gurasoen jatorria bertakoa da, eta bertan familia izaten jarraitzen du adibidez bere lehengusu Alejandro, zeini zenbait gutun bidaltzen dizkion. Beste nukleo familiar bat, bere koinatu Raimundo Abaroa eta bere seme-alaba (Etxeitararen lobak direnak) Ventura, Nicolas eta Maritxuk osaturikoa da. Seme-alaben kasuan, gutun gehienak euren ikasketei buruzkoak dira. Eurei buruzko gutunen arloan, aita Raimundo ordea, Etxeitarekin batera zenbait negoziotan sartua dabil. Badirudi Raimundo Abaroa jauna, oraindik negozioetan aktiboan dabilela. Beraz Etxeitak Abaroari bidaltzen dizkion gutun guztietatik, atal honetan batzuk soilik aztertuko ditugu, guztiak ez baitira auzi familiarrei buruzkoak. Hirugarren nukleoa, Juan Beotegi bere lobak osatzen du, Liverpoolen dagoenak. Izan ere, honi bidalita dauden gutunetatik asko, auzi profesionalekin nahasten dira, baina, zenbaitetan Beotegi, kargu batetarako gomendatzen dio beste gizon bati beraz esan dezakegu, familia izateak, eragin handia duela Beotegi eta Etxeitararen arteko harremanetan.



Azkenik, 1904. eta 1905. urteetako gutunetan beste afera bat azaltzen da Etxeitararen gutunetan. Izan ere, Etxeitak Mundakan etxe berri bat eraikitzeko asmoa gero eta gehiago azaltzen du hemen. Beraz esan dezakegu, arazo hau famili arazoa ere badela, nahiz eta etxe hau eraikitzeko baimenak eta aukerak lortzeko gutunik gehienak, ez diren Etxeita sendiko kideei bidalitakoak.

Azkenik, atal honekin bukatzeko, gauza bat argitu nahiko nuke. Jose Manuel Etxeitararen gutun asko eta berarekin harremanak dituzten pertsona asko, ez dira soilik "famiariok", "lagunak", "negozioideak" edota "laguntzileak". Askotan aurreko ezaugarri hauetako bat baino gehiago hartzen dute. Beraz egin dudana sailkapen hau ez da oso zuzena, eta azpialal honetan "Familiari" buruzko atalean egin dudan sailkapentxo hau (Garaiko familia, Abaroatarrak, eta abar) ere ez da oso zuzena izango. Nolabaiteko sailkapena egin behar izan nuen eta niri modu honetan egitea iruditu zait egokien.

Jose Manuel Etxeita eta Alejandro Etxeita

Esan dugun bezala, Alejandro Etxeita, Jose Manuel Etxeitaren Garai herriko lehengusua da. Euren arteko karta gehienetan, afera guztiz etxeoetaz hitz egiten dute, konfiantza osoko doinu batetan.

Jose Manuelek Alejandrori bidaltzen dion lehen gutuna, 1900.eko abenduak 20koa da. Bertan Mundakako jaun baten familiak (Perseverando izeneko batenak) neskame bat behar duela dio, honen ama oso gaixo dagoelako. Etxeitak Alejandro lehengusuari, Garain neskame bezala egiteko moduan dagoen norbait ezagutzen duen galdetzen dio, konkretuki, Antonia eta Dominika izena duten neska bitaz ari da Jose Manuel gutun hauetan (gero argituco denez, Alejandroren alabak dira). Etxeitak, bi neska hauek etorri nahi ez balute, Garaiko beste neska bat bidaltzen saiatzeko eskatzen dio Alejandrori. Izan ere deigarria da karta honetan, jabeek herrixka batetako neskame bat nahi izatea. Etxeitaren eleberrietan askotan egiten da herrixkako bizimoduaren apologia. Hori Jose Manuel Etxeitaren pentsamendu kontserbakorraren adierazle izan daiteke. Bestalde gutun honetan aipatzen denez, soldata urteko 20 ogerlekotakoa dela uste du Etxeitak. Etxeitak ezartzen duen beste “baldintza” bat, oso gaztea ez izatean datza.

Hurrengo gutuna, 1901.eko ekainak 4koa da. Kartaren doinuaren arabera Etxeita nahiko urduri dago, izan ere, familiako bat hil egin da (Izaba Leona) eta Jose Manuel Etxeita, bere hileta elizkizunetara joan nahi izanda ere, ez da enteratu. Hau jakinarazteko presa handia du, gutunean dioenaren arabera “berria dakarren zure gutuna, gaur goizeko hamaiketan jaso dut”; beraz egun berean, pentsa dezakegunez; berehala erantzun dio Jose Manuel Etxeitak Alejandro Etxeitari. Gainera Jose Manuelek elizkizun batzuk ordaintzeko eskaintzen du bere burua; beraren, bere seme Salvadorren, Maurizia Etxeitaren eta Miguel de Beotegiren izenean.

Bestalde, Dominikari buruz mintzatzen da Etxeita. Neska hau, jadanik Mundakan dago, neskame bezala, Juan Bautista izeneko gizon batekin. Karta honetan azaltzen den bezala, Dominika pozik dago eta Juan Bautista hau Ingalaterrara doanez denbora batetarako; Dominika, lehengo gutuneko Perseverandoren ama zaintzen geratuko da. Azkenik Etxeitak goraintziak ematen dizkio Sebastian lehengusuari (Alejandroren anaia?), eta Gervasia izeneko bati (Alejandroren emaztea?).

Hurrengo gutuna, 1902.eko otsailak 21an bidaltzen dio Jose Manuelek Alejandrori, eta gaia aurreko gutunen antzekoa da: izan ere Jose Manuel Etxeitaren etxeko neskame-sukaldaria ezkondu egin da, eta sukaldari baten beharrean dabil Jose Manuel. Horregatik, ea Alejandro Etxeitak, bere alaba Antonia bidali ahal duen galdetzen dio, hiru ogerlekoren soldataren truke. Bestalde, Dominikaren partez (errekadu) bat eskatzen dio mundakarrak garaitarrari.

Laugarren eta azken gutuna, 1905.eko otsailak 18koa da. Hau ere famili kontuetaz ari da, baina oraingoan, Etxeitak ez dio bere lehengusuari neska-

merik edo mesederik eskatzen baizik eta Alejandro Etxeita eta bere bi alaben kontu korronteen egoerari buruz (doa) karta hau.

Ikusten dugun bezala, gutun guztiak oso familiarrak dira, eta konfiantzazko doinuaz idatzirikoak. Hau pixka bat apurtzen duena, bigarren gutuna da izan ere heriotza bat gertatu da familian. Hala ere, ez dirudi horrek harremana apurtu duenik, izan ere Jose Manuel Etxeitak, elizkizunak ordaintzeko eskaintza bat egin baitio bere lehengusuari, eta hilabete batzuk geroago, mesede bat eskatzen dion gutun bat bidaltzen baitio.

Azkenik lehengusuari ez bada ere, bere seme Salvador Etxeitari bidaliriko telegrama bakarra dugu. Telegrama 1904.eko urriak 4ean bidali zuen Donostiara, Salvador bertan zegoelako. Hau zioen telegramak: "En casa todos muy buenos y Rosita muy contenta con vuestra felicitación".

Jose Manuel Etxeita eta Abaroatarrak

Raimundo Abaroa jauna, Jose Manuel Etxeitaren emazte Juana Abaroaren neba da. Honek hiru seme-alaba ditu Ventura, Nicolás eta Maritxu, Etxeitaren lobak. Lehenak, Donostian ikasten du, Miracruzén, badirudi, mojen eskola batean ari dela ikasten, berari buruzko karta asko (matrikulen eta gastuen ordainketak), moja batzuen izenera bidaltzen baititu Jose Manuel Etxeitak. Bigarrenak, aldiz Gernikan ikasten du. Familia honetan, bi azpimultzo, bereiz ditzakegu. Alde batetik, Raimundo Abaroa dugu, Etxeitaren familia-koa izateaz gain, berarekin batera negozio profesionalean sartua dagoena. Beraz, Etxeitak askotan bere influentzia Abaroaren alde erabiltzen du. Haatik, atal hau gutun familiarrei buruzkoa denez gero, atal honetan Etxeita-Abaroa gutun guztietatik, guztiz familiarrak direnak, edota, bien arteko senitarte-loturak bien arteko harreman profesionalean zerikusirik duela argi uzten dituzten kartak soilik aztertuko ditugu. Etxeita eta Abaroaren arteko gutun guztiz profesionalak beste atal batzuetan ikertuko ditugu.

Famili honen beste azpimultzo bat, seme-alabek osatzen dute. Hauen eta Jose Manuel Etxeitaren arteko gutunetan gai intimoak soilik kontatzen dira, eskolako gastuak eta abar. Multzo honetan eskolako irakasleei eta mojei bidalitako kartak ere aztertuko ditugu, izan ere, familiarekin harreman estua baitute.

Lehenengo gutunak, urriaren 9an bidaltzen ditu Jose Manuel Etxeitak, bata Ventura de Abaroari, eta beste Nicolasi (azken gutun honetan, Abaroa izena soilik azaltzen da, baina loba batez ari denez, uler dezakegu Nicolas dela). Venturari bidalitako karta, Donostiara bidaltzen du. Bertan, Ventura berak bidalitako karta bati erantzuten dio, Jose Manuel Etxeitak, neska, bere eskola berrian pozik denez, era berean bere poza adierazten du. Aldi berean, familiako kontuak kontatzen dizkio, familiako kideak, batez ere bere neba Nicolas nola ari diren. Alta, kezkatuta ere badago Etxeita, neskaren aitaz (Raimundoz) ezer ez dakielako. Nicolasi bidaltzen dion gutunak, ordea, beste doinu bat dauka, ikasketetan saiatzeko eskatzen dio Etxeitak, eta oporren

ganean hainbeste ez pentsatzeko. Aldi berean, bere ahizpari Abaroari buruz erakutsi dizkion kezka berdinak azaltzen dizkio Etxeitak Nicolasi.

Raimundo de Abaroaren izena lehen aldiz 1901.eko urtarrilak 25eko gutun batean ikusten dugu. Egun horretan Etxeitak, Filipinetako gobernari izandako Ramon Blancorekin. Izan ere, Ramon Blanco jenerala zen, eta Raimundo Abaroaren gaineko mesede bat eskatzen dio Etxeitak Blancori: Abaroren gaineko susmoak kentzeko ikerketa bat egitea. Izan ere, 1896.eko Jose Rizalen matxinada, Antonio Cendrera gobernari zelarik, matxinadaren aurka borrokatzeko Abaroak boluntario gudaroste bat zuzendu zuen. Abaroak, Cendreren baimenarekin, dokumentu bat eman zien soldadu bakoitzari, boluntario konpainia hauek desmobilizatzerakoan, paga estra jaso zezaten. Hala ere, Cendrera laster mugituko zuten kargutik, beraz, ezin izango zuen dokumentu hori eman. Bestalde, Abaroa Madriler a bueltatzean, Guda Ministerioak dokumentu hauek eta boluntarioentzako dirua ukatu zion Abaroari, Ministeriooko paperetan ez baitzen agertzen Abaroa boluntario konpainia batetako kapitaina zelarik. Beraz Etxeitak Blancori; Abaroa benetan San Fernando Boluntario Gudarosteko Kapitaina izan zela frogatzeko eskatzen dio. Gutun honetan, Etxeitak ez du konfiantza handirik jartzen Blanco hartaz gogoratuko denik. Horregatik bere kargu ohiak gogorarazten dizkio: Echeita y Portuondo enpresaren arduradun, eta 1894.etik 1897.era Salerosketa Kameraren Lehendakari eta Filipinetako Administrazioako Kontseiluko kide izan zen Etxeita. Modu berean Etxeitak, orain bere etxean dagoela diotso Blancori, eta bere konfiantza irabazteko, denboralditxo bat bere etxean pasatzera gonbidatzen du Etxeitak Blanco.

Hurrengo gutuna, 1901.eko otsailak 12koa da. Etxeitak Blancori eskerrak ematen dizkio honek aurreneko kartan "Abaroa auzia" zuzenean kudeatzeko promesa bidali baitio. Bestalde kartaren gainontzekoa, Etxeitaren lausengu bat da martxoak 2an ordea, beste karta bat bidaltzen dio Etxeitak Blancori. Etxeitak Blancoren erantzuna jaso duela jakinarazten dio, (erantzun honetan, Blancok Guda Ministerioak Abaroaren partehartzea frogatu ez duela kontatzen dio). Etxeitaren kartan, hala ere, eskerrak ematen dizkio jeneralari, bai bare partetik zein Abaroaren partetik. Era berean, Abaroak laguntza, beste "eragindun gizon" bati eskatuko diola esaten dio, Juan Etxaluzeri hain zuzen ere. Azken karta bat ere egongo da, apirilaren 13an hain zuzen ere. Behin jakinda Abaroaren auzian aldeko erabakirik lortzeko aukerarik ez dagoela, eskerrak eman eta gonbidapena egiten dio berriz Etxeitak Ramon Blancori.

Urte bereko uztaileak 15ean, hasitako karta bat azaltzen da. Bertan Abaroak, Etxeitari jabetza batzuk pasatzen dizkio. Abuztuan, beste bi karta bidaliko dizkio Etxeitak Abaroari: baten, loterian ezer tokatu ez dela esaten dio, bigarrenean aldiz, José Sainz izeneko gizon bat, Itsas Konpainiako Administrazioaile Nagusi Juan T. McLeod-i aurkezteko esaten dio. Gutun hauek irakurrita, badirudi Abaroa Manilan dela, karta hauek Manilara bidaltzen baititu Etxeitak. Hala ere ez da hala, kartak Manilara bidaliak dira, Abaroa harantz doalako, baina momentuz, Etxeita familiak ez du Abaroaren berririk jaso, ezta honen iritsipera kartarik, Etxeitak hurrengo kartaren batean adierazten duen bezala.

Bere aitaren egoeraren berri emateko, irailak 24ean, Jose Manuel Etxeitar, Ventura Abaroari idazten dio. Hemen, bere ikasketak ondo doazelako zoriontzeaz gain, Jose Manuel Etxeitar bere aitaren (Raimundoren) berri ematen dio Venturari. Era berean, bere hezkuntzaren gastuak kontatzen dizkio J.M. Etxeitar V. Abaroari. Afera honen gainean, Etxeitar beste gutun bana bidaltzen die urriaren 5ean Raimundori eta Angeles Maria serorari, azken hau Venturaren ikastetxeko (Asunción Ikastetxea) kontu arduraduna delarik. Raimundo Abaroari bidalitako kartan, gauza bi aipatzen dizkio. Alde batetik, badirudi Jose Manuel Etxeitar kezkatua dagoela, oraindik Raimundo Abaroaren iritsipera gutuna ez baitu jaso. Bestalde, bere semeen ikasketa gastuen zerrenda egiten du Etxeitar. Bere poza azaltzen du Abaroaren seme-alabek eskolan nota onak atera dituztelako. Angela Maria serorari bidalitako gutunean, Ventura Abaroaren heziketa gastuak nola ordainduko dituen jakinarazten dio Etxeitar. Urriak 17an gutun bat bidaltzen dio Etxeitar Luisa Artola de Martínezi, Venturaren hezkuntzak sorturiko gastuei aurre egiteko, transferentzia batzuk osatuz eta emakume honi dirua bidaliz.

Azaroak 19an Etxeitar karta normal bat bidaltzen dio Abaroari, Gabonetako loterian jokatu duen zenbakia jakinaraziz.

1902. urtea hasterakoan, ordea, berriz itzultzen dira Abaroaren seme-alaben gastuei arreta jartzeko garaia. Urteberri egun berberean, Angela Maria serorari bidaltzen dio gutun bat Jose Manuel Etxeitar, Ventura Abaroaren hilabetea ordaintzeko. Kantitate hau 605,50 pezetakoa da, eta zein kontutan utzi duen ere azaltzen du Etxeitar. Kontu hauen berri, Raimundo Abaroari ematen dio Etxeitar urtarrilak 5eko gutun baten, nahiz eta gutun hau berez, euren negozioen buruzkoa izan.

Urtarrilaren 20an Luisa Artola de Martínez izango da gutuna jasoko duena. Gutun hau ere, Venturaren gastuei buruzkoa da, baina bitxikeria bat badu: izan ere, gutun honetan, paragrafo xeble bat azaltzen da: “Los Yanquis no saben que antes de fin del Mundo tenemos que comunicarnos con los habitantes de la Luna, y mientras no suceda esto no hay cuidado de lo otro”. Ez dakit zeri buruz ariko zen Etxeitar astronomi ariketa honekin, baina xeblea da oso. Ez dakit txantxa bat den, kontra-seina mota bat, edo Filipinetan AEBetako Gobernuak eramaten zuen politika komentatzeko modu bitxi bat.

1902.eko martxoak 25.ean, Etxeitar Raimundo de Abaroari gutun berri bat idatziko dio. Gutun honetan familiako berrien laburpena egiten du Etxeitar. Konkretuki, Ventura alaba azterketetan dagoela esaten dio, eta azterketa hauen ostean, 8 egunetako oporrak dituela: Hala ere, berririk larrienak Gernikako Ikastetxetik datoz, ez Donostiatik. Izan ere, bertan Nicolas gazteak, matxinada batean parte hartu izan du, badirudi Bilboko bi gaztek bultzatutakoa. Nicolasek egun batzuk pasa ditu zigortuta, matxinadan parte hartzeagatik. Bestalde beste alaba, txikiena, Maritxu, eskolara lasai doala eta hazten dabilela esaten du Etxeitar.

Apirilak 2an kontuak egiteko tenorea heldu da berriz ere, hiruhilabetekoa bukatu egin bait da. Horregatik gutuna bidaltzen die Jose Manuel Etxeitar Asuncion Ikastetxeko arduradunei Ventura Abaroaren gastuak ordaintzeko.

Zifra pixka bat irakurtezina bada ere, badirudi gastu berria 569,20 pezetatan ezartzen duela. Data berdinean beste gutun bat bidaltzen dio Raimundo Abaroari, balantzeak eginez. Balantze hauetan, ohiko bezala, bere bi seme alaben gastuak agertzen dira, nahiz eta gauza bakarra gauza bakarra ez den. Gutun honek berez, garrantzi gehiago dauka, arazo profesionalengatik, baina arazo familiarrak ere nahastu egiten direnez gero, atal honetan sartzea erabaki dut. Ekainean 3an, Luisa Artola de Martínezi bidalitako gutun batetan, letra batzuk bidaltzen dizkio, gastu ezberdinei aurre egiteko. Ekainaren 9an, hartzaile berdinari bidalirikoa karta batean, Venturaren egoera gehiago komentatzen du Etxeitak.

Uztailaren 7an, Pedro Martínezi bidalitako telegrama bat aurkitzen dugu. Hartzailea, Pedro Martínez donostiarra dugu. Hau dio telegramak: "Juana sale para esa (Donostia) a buscar a Ventura". Juana Abaroa, Jose Manuel Etxeitaren emaztea, Raimundo Abaroaren arreba eta Ventura Abaroaren izeba da. Beraz, ondoriozta genezakeena hauxe da: Juana Venturaren bila doala Donostiara, honekin batera Mundakara etor zedin.

Uztailak 11an, beste gutun bat bidaliko dio Etxeitak Abaroari, balantzea eginez. Baina hemen, Ventura Mundakara zergatik den etorria azaltzen du: Asunción Ikastetxean, ikasleren batek tifusa hartu duelako, beraz, ikastetxetik ikasleak etxera bidaltzeko gomendioa egin dutelako. Bestalde Etxeitak Abaroaren nahi bat baieztatzen du: Raimundo Abaroak, Ventura Abaroak 1903.eko uztaila arte Asunción Ikastetxean geratzea nahi du. Bestalde berri oso garrantzitsu bat aipatzen du: Muniategi andereari lur sail bat erosiko diola etxe berri bat egiteko. Etxe berri hau Etxeitaren obsesioa izan zen hurrengo urteetan, eta gutun honetan Etxeitak lehen aldiz aipatzen du.

Uztailan zehar, Etxeitak beste hiru karta bidaliko ditu, Ventura Abaroaren gastuak konpontzeko. Bata 15ean bidaliko dio Angela Maria serorari, eta bertan hutsegite batzuk aipatzen ditu Etxeitak. Etxeitak, kartarekin batera Apirilko fakturen eta letren kopia bidaltzen du, bere postura indartzeko. Uztailak 26ean ordea beste letra bat bidaltzen dio, Ventura Abaroaren heziketa gastuak ordaintzeko, uztailaren 1etik tifus izurritea eman zen arte (6 egun). Uztailaren 28an nahaste honen gainean jartzen du Raimundo Abaroan (noski, karta honetan arazo profesionalak garrantzi handiagoa daukate). Aza-roak 12an Etxeitak Abaroarentzat loteria erosiko du.

1903. urtea, aurrekoa hasi zen bezala hasi zen, hau da, Angela María serorari bidalitako karta batekin, Venturaren gastuak zirela eta. Karta hau urtarrilak 8an bidalia izan zen, eta bi egun geroago konfirmatzea bidali izan zion Raimundo Abaroari. Raimundo Abaroari bidalitako kartan ohiko bezala balantzea zetorren eta balantzearen barruan, Nicolás eta Venturaren gastuak. Otsailak 12 eta 20 egunetan, Luisa Artola de Martínezi karta bi bidaltzen dizkio Etxeitak, banku-letrak bidaliz. Apirilaren 21.ean Asunción Ikastetxera María Florentina serorari Ventura Abaroaren izenean 590,60 pezeta ordaintzen ditu. Halako azken ordainketa izango da, beraz aurreko gutun batean azaltzen zen bezala, litekeena da Venturak urte horretako Uztailan Ikastetxe hori utzi izana.

Gutun hauen arabera, argi geratzen den gauza bat hauxe da: Etxeita nahiko gizon kontserbakorra (eskola erlijiosoa) eta negoziokikoa eta etxeko kudeaketarekiko oso arreta handikoa zela.

Jose Manuel Etxeita eta bere loba Juan Beotegi

Gutuneriaren arabera, badirudi Jose Manuelen arreba Maurizia Etxeita eta honen senar Miguel Beotegiren semea zela Juan Beotegi hau. Juan Beotegi ere itsasgizona zen Liverpool eta Glasgowera bidaltzen ditu gutunak Jose Manuel Etxeitarak. Halaber, gutuneria honetan Juan Beotegiri bidalitako hiru karta bakarrik aurkitu ditut.

Lehen biak 1901.eko otsailekoak dira, 2koa bata eta 7koa bestea. Lehenngoan, gutxi gora behera, itsasontziak gidatzeko lizentzia lortzeko zer egin behar duen azaltzen dio Etxeitarak Beotegiri. Bigarrenean aldiz, gutunarekin batera, Etxeitarak Beotegiri zedula pertsonala bidaltzen dio.

Azkena ordea, urte bereko abuztuak 13koa da, eta bertan, Etxeitarak Beotegiri orduko klima politikoa kontatzeaz gain, azterketak gainditzeko zer egin behar duen esaten dio, formalitateak nola bete, arauak, eta abar.

Jose Manuel Etxeita eta bere etxe berria

1902.ean Jose Manuel Etxeita etxe berri bat eraikitzeaz hitz egiten hasten da. Gutuneria honetako gutunak bukatu arte (1905.ean) gai hau. Etxeitararen mintzagai garrantzitsuenetako bat bihurtuko da. Izan ere, 1902.eko uztailak 11an hitz egiten du lehen aldiz Etxeitarak honetaz. Etxeita jaunak, Raimundo Abaroari hasiera baten, Concha Muniategi izeneko andre bati, lursail bat erosiko duela esaten dio. Lursail hau Mundakatik Bermeora doan errepi-dearen ondoan dago, itsasoranzko aldean. Lursail hau erostean, Etxeitarak bertan etxe bat egin nahi duela esaten dio Abaroari. Lursail honen prezioa ere komentatzen dio: 2.000 ogerleko.

Abuztuak 9an beste gutun bat bidaltzen du Etxeitarak, honakoan Marcelino Arrupe bilbotarrari. Badirudi Arrupe hau arkitektoa dela. Etxeita, Arrupek planoetan egin duen aldaketa batez ari da, izan ere Arrupek Etxeitararen gogoko ez den aldaketa bat sartu du planoan, Etxeitarak ez dakien gauza batengatik: ez daki estiloagatik edo obra merkatzeko egin duen. Hala ere, Etxeitarak aldaketa hori kentzeko eskatzen dio arkitektoari, izan ere, etxean toki gehiago izan nahi du, obra garestitzearen truke bada ere. Bestalde Aldundiaren lizentzia duela esaten dio Etxeitarak Arruperi.

Bi egun barru, Raimundo Abaroari beste gutun bat bidaltzen dio. Gutun honetan, Elekrika Konpainian akzioen gorabeherak kontatzeaz gain, eraikitzeke dagoen etxearen prezioaz mintzatzen da Etxeita. Etxea, Jose Manuel eta bere seme Salvador Etxeitarak egingo dutela esaten dio Abaroari. Guztira 6.000 ogerleko balio duela, baina azkenik, litekeena 7.000 ogerlekotara igo-

tzeta izango dela dio. Etxeitarren arabera, bere ondasunen zati handi bat inbertitu beharko luke etxearen eraikuntzan. Beraz, Etxeitak Abaroari Manilatako Konpainietan (Elektrika eta Itsas Konpainia) dituen akzioek ematen dituzten irabaziak ateratzeko, eta hauek etxea ordaintzeko giro postaz bidaltzeko eskatzen dio.

Azaroaren 7an Marcelino Arruperi beste gutun bat bidaltzen dio, etxea egiteko kontratatzen diren zerbitzu bakoitzaren prezioa zehaztu asmoz. Era berean ordainketa epeak zehazten ditu Etxeitak. Hila berdineko 28an ordea, Bilboko dekoratzaile batzuen enpresara (Lostaló, Arrizabalaga eta beste) bidaltzen du gutuna, hauek mosaiko diseinatzaileak izanik, katalogoa bidal diezaiten; honela, Etxeitak mosaiko polit bat aukera dezan. Abenduaren 1ean Raimundo de Abaroari bidalitako gutun batean, Etxeitak 1903.eko abuztuaren, etxe berria bertan bizitzeko prest egongo dela espero duela esaten du.

1903.ean etxe berri honetan aurrerapenak ikusten hasiko gara. Hasteko urtarrilaren 10ean bidalitako gutun batean, balantzea egiteaz gain, Jose Manuel Etxeitak, etxe berriaren teilatua jartzera doala esaten du. Urtarrilak 21ean Marcelino Arruperi idazten dio. Izan ere, etxea eraikitzeko lanerako materialek, Mundakatik Bermeora doan bidearen zati bat okupatzen dute, eta hau egiteko Aldundian baimen bat eskatu behar da. Arrupek, bere izenean baimen hau eska dezan eskatzen dio Etxeitak, ordaindu behar izanez gero, Etxeita bera egingo kargutuko dela esanaz. Otsailaren 22an Raimundo Abaroari idazten dio Etxeitak. Oraingoan ez da etxe berriaz ari baizik eta Mundakako Juan Bautista Longa kalean duen etxeaz. Etxeitak aseguru egiteko duela esaten dio, bestela, sute bat gertatuz gero (eta garai horretan Lekeition sute bat eman zen), konpentsaziorik izango ez luketelako. Aseguru hori Abaroaren izenean jarri du Etxeitak.

Irailak 1ean, Bizkaiko Aldundiari karta bi bidaltzen dizkio Etxeitak. Baimen mota bi eskatzen ditu, lehena, lehengo gutun batean, azaltzen zen bezala, bidearen zati bat lanerako materialekin okupatzeko baimena eskatzen dio Etxeitak. Bigarrenena aldiz, bere lursailen aurretiaz botatako hesi baten tokian beste bat altxatzeko baimena eskatzen du Etxeitak. Badirudi hemendik aurrera, lanak bere bidean jarraitzen dutela inolako oztoporik gabe. Lanei buruz bidaltzen duen azken gutuna, 1904.eko azaroaren 4koa da, Teodoro Bidaetxea bermeotarrari bidalitakoa. Karta honetan Jose Manuel Etxeita Mundakako hilerriko Etxeita eta Abaroa familien panteoien diseinuari buruz ari da. Esan beharra dago, garai honetan, Raimundo de Abaroa, Mundakako alkate dela, hori agertzen da Etxeitak 1904.eko martxoak 21ean idatzi zuen gutun batean.

JOSE MANUEL ETXEITA ETA BERE EKIMEN PROFESIONALA: ENPRESARIA

Jose Manuel Etxeita, idazlea eta Mundakako familia errespetatu batetako kidea izateaz gain, kolonialista ere izan zen, Espainiako funtzionarioa izan zen Manilan; besteak beste, Manilako alkate izanez. Kolonietan hain postu garrantzitsua, soldata on batez ordaindu ohi zen, baina are garrantzi-

tsuagoan, laster atzeman dezakegunez, postu honek dakartzan kontaktuak eta influentziak dira. Laster ikusiko dugunez, Etxeitan, Espainiar Gobernuko gizon garrantzitsuekin harremana zuen, hala nola, Weyler jaunarekin. Bestalde bere influentzia erabiltzen du bera akzionista den konpainietan bere hurbi-leko jendea “kokatzeko”.

Jose Manuel Etxeita, alkate izan ondoren ere, gizon boteretsua eta enpresari aberatsa zela argi geratzen zaigu, bere akzioen kokapena jakin ondoren. Besteak beste *La Electricista* eta *Minas de la Bernilla* konpainietan da akziodun. Baina batez ere, Manilako Itsas Konpainia da Etxeitak bere aberastasunak akzioetan inbertitzen dituen enpresa. Konpainia honen arduradun asko bere lagunak dira. Adibidez, Juan T. McLeod administratzailearekin sarri karteatzen da. Gerora, bere koinatu Raimundo de Abaroa Administratzaileorde izendatuko dute.

Etxeita, Itsas Konpainiaren parte izan baino lehen, “Echeita y Portuondo” elkartearen nagusietako bat zen. “Echeita y Portuondo” elkarteak, itsasontzien bidez, posta zerbitzua betetzen zuen Filipinetan. Alta, bere hiru ontzietatik; *Elcano*, *Churruca* eta *Gravina*, azken hau hondoratzerakoan; enpresa krisian sartu zen eta beste batzuekin fusionatzeko beharra izan zuen. Fusio horretatik sortu zen Manilako Itsas Konpainia. Gutuneria hasteko momentuan, Juan T. McLeod, Etxeitararen laguna Manilako Itsas Konpainiaren administratzailea zen, eta kargu honetan jarraituko zuen, 1904.ean dimititu arte. Bere kargua Manuel M. Rincónek beteko du.

Denborarekin batera, Itsas Konpainia honi arazoak sortuko zaizkio. Arazo hauetako bat, Estatu Batuetako enpresa handi batekin izandako negoziaketan porrota izan zen. Izan ere, New Yorkeko enpresa batek, Itsas Konpainia erosi nahi izan zuen, baina Itsas Konpainiako akziodunak hasieran ados bazeuden arren, salmenta formalizatzeko azken xehetasunek, akordioa garaiziko zuten. Izan ere, azkenean ez erostea erabakiko dute estatubatuarrek, eta horrek atsekabe handia sortuko du Etxeitarengan. Gainera, hilabete batzuk geroago, AEBetako Gobernuak Filipinetako portuan kabotaia askatasuna ezarriko zuen. Erabaki honek, argi eta garbi lehenik zeuden enpresei, hots, enpresa espainolei, kalte handia eragingo zien. Beste arazo bat, Konpainiako agintari ohi bik, Rafael eta Francisco Reyes anaiek Itsas Konpainiaren aurkako salaketarekin etorri zen. Izan ere, Konpainiak diskriminatu egin zituela ulertu zuten anaiok, beraz Konpainiari salaketa jarri zioten.

Beste enpresetan emaitza gazi-gozoak izan zituen Jose Manuel Etxeitak. Adibidez, Filipinetan urre-patroia ezartzearen AEBen Gobernuaren erabakiak *La Electricista* konpainiarengan eragina izango zuen. *La Electricista* konpainiako akzioak saltzen bukatu zuten Etxeitak eta bere koinatu eta bazkide Raimundo de Abaroak. baina are okerrago joan zitzaion mundakarrari, *Minas de la Bernilla* meatze konpainiarekin Hemen egin zuen inbertsioa guztiz okerra izango zen eta diru asko galduko zuen Etxeitak jokaldi honekin.

Etxeita, kolonietako politikoaren eredu prototipikoa da. Oso kontserbakorra, dirua irabazteaz eta gordetzeaz oso kezkatuta ematen du. Berak

1898.arte izandako Manilako Alkate kargua, bere negoziotan baliatzeko profittatu duela ematen du. Ez hori bakarrik, askotan bere negozioetan, bere senideak edota lagunak ondo “kokatzen” saiatzen da. Bestalde, adierazgarria da Etxeita ez dela enpresari industrial bat, finantza enpresaria baizik. Hau da, ez da euskal oligarkiaren enpresari prototipikoa (Neguriko gehienek, oligarkia finantzariaren parte izan aurretik euren enpresa industrialak zituzten), baizik eta politika eta aparatu publikotik, finantzetara salto eginiko gizona. Hau da, ez da XIX-XX mendeetan, Espainiar Estatu penintsularrean ugaldutako burgesiaren ereductako bat, kolonietako burgesiaren parte baizik. Bestalde enpresari bezala oso trebea ez zela nabari da, izan ere, bere inbertsio askok porrot egin zuten. Berak inbertitutako enpresa asko, kolonietako produktuak dira (Itsas eta Elekrika enpresak, baina ez meatze enpresa), eta gainbegiratu bat emanez, koloniak galdu ostean, halako enpresek estatuaren faboreen bermea galdu egingo zutela nahiko argi geratzen zen. Badirudi, bere ondasunen zati bat, Penintsulako enpresa ziurragoetan inbertitu beharko zukeela Etxeitak.

Jose Manuel Etxeita, Itsas Konpainia eta Estatuaren zorra

Etxeitak eta bere Itsas Konpainiak, aurre egin behar izango zien arazoetan, Valeriano Weyler, kolonietako jeneralarekin, eta XX. mendeko lehen urteetan, Espainiako Guda Ministroarekin izan zuten. Weylerrekin izandako arazoa, Estatuak Etxeitaren enpresa batzuei, 1888 eta 1898 artean eginiko zerbitzu batzuegatik diru kopuru bat zor zielako eta oraindik ordaindu gabe zutelako izan zen Weylerrekin izandako arazoa. Valeriano Weyler Tenerifeko markesa zen eta Filipinetako administrazio kolonialean postu garrantzitsu bat izan zuen, beraz sinets dezakegu Etxeitarekiko Estatuaren zorpetzearen arduradunetako bat izan zela. Etxeitak Weyler berari 1901.eko urriaren 12an bidalitako gutun batetan azaltzen da lehen aldiz. Gutun honetan, Etxeitak, Filipinetan, gertaturiko gertakizun bati buruz hitz egingo diola esaten dio Weyler jaunari; hain zuzen ere, Etxeita gerentetzat duen “Echeita y Portuondo” enpresaren ekimen batzuei buruz. Enpresa honek “Filipinetako artxipelagoaren hegoaldean, posta zerbitzua egiten zuen, *Churruca*, *Gravina* eta *Elcano* itsasontziekin”. Etxeitak, *Gravina* ontziaren posta-banatzeko bidaia batzuk aipatzen ditu, zeinek bere garaian ordainduak ez ziren izan. Bidaiok, 1888 eta 1889 urteen artean egindakoak izan ziren, eta zorrak, Filipinetako indizeen arabera, 16.360\$-takoak ziren. Jose Manuel Etxeitak, afera honen kudeaketan, Rufino de Amusategiren eskuetan jarraikortasuna izan duela jakinarazten dio Weylerri.

Beste kontu batez ere mintzatzen da Etxeita, izan ere “Echeita y Portuondo” enpresak huts egin zuenean, “lehiakortasun kaskarrarekin”, enpresa hau beste batzuekin fusionatu behar zela kontatzen dio, Manilako Itsas Konpainia fundatuz. Modu honetan, *Elcano* eta *Churruca* ontziak, Konpainia berriaren jabetza izatera pasa ziren, ordurako *Gravina* ontzia hondoratua zegoen. Jose Manuel Etxeitak, Filipinetako insurrekzioa eman zenean, Itsas Konpainiak, “espainiar kausaren alde” zein ondo jokatu zuen kontatzen dio Weylerri. Izan ere, Weyler orduan Filipinetako arduradun mili-

tar-kolonialetako bat izanagatik, Etxeita ministroa bere Konpainiaren ontasunaz konbentzitzen saiatzen da, ministroa, orduan Konpaiak egindako mesedeen onuradun izan zitekeelako. Guzti honen bidez, "Estatuak, Konpainia honi, zeinen interesatuetako bat ni naizen, diru kantitate bat zor diola" esaten dio Etxeitak Weylerri. Afera hau, Francisco de Pleguezueloren eskuetan jartzen du Etxeitak.

Etxeitak, afektibitate hipotetiko hau erabili nahi du Weylerrek Estatuaren aurrean Konpainiaren interesak defenda zetzan. Honela azaltzen da gutunean

ez nizuke eragotzi nahi, ataka hau ez delako zure ardurakoa; horregatik, nik zu molestatu nahi ez zaitudanez, gai hau konfiantza handia duzun agintariekin tratatzea soilik komentatzea eskertuko nuke.

Azkenik Weylerren Estatu-bidaia goraipatzen ditu, agintari militarra lausotu asmoz.

Egun berean, Etxeitak Rufino Amusatategiri idazten dio. Etxeitak Amusatategirengan konfiantza handia du, eta ez da Etxeitarren zeregin enpresarialetan mundakarraren eskutik agertzen zaigun lehen aldia (Amusatategi, gutun honen arabera, Itsas Konpainiaren akziodunetako bat zen). Weylerrekiko adiskidetasuna aipatzen du, baita ere, Manilan, itsasontzien bidez eginiko negozio ezberdinak. Karta hau, Weylerrekiko aferan, Etxeitarren interesak nola defendatu behar dituenaren argibideen multzo bat da; tartean, beste abokatuak, Francisco Pleguezuelo ere aipatzen du. Karta honekin batera, Weylerri bidali dion gutunaren kopia bat bidaltzen dio Etxeitak Amusatategiri. Bere burua Weylerri aurkezteko karta bat bidaltzen dio Etxeitak Amusatategiri, abokatuak militarra ezagutu dezan beharrezkoa ikusten baitu.

Hurrengo eguneko datarekin, gutun berri bat idazten dio Etxeitak Weylerri. Gutun hau, nahiz eta data ezberdinarekin bidalia izan, badirudi, Amusatategik Weylerri aurkezpen karta bezala erakusteko dela, Amusatategiren merituak laburbiltzen baititu. Egun berean, Pleguezuelori gutun bat bidaltzen dio Etxeitak. Gutun honetan, zorra lehenbailehen kobratzeko, ahalegin guztiak egin behar direla esaten du Jose Manuel Etxeitak. Etxeitak duen presarengatik, badirudi, bere egoera ekonomikoa ez dela guztiz ona. Ezkortasunerako beste datu bat ere badago, gutun honen arabera, badirudi Weyler eta Etxeitarren arteko adiskidetasuna ez dela azken honek nahi bezain handia; "adiskidetasun" hau tratu profesionalera mugatzen zela bait dio Etxeitak. Etxeitak, Pleguezuelok abuztuaren 5ean eta urriaren 9an kartak hartu dituela esaten dio; eta benetan eskertu egiten duela dio, izan ere, hasiera baten 1888-89ko afera ("Echeita y Portuondo") bakarrik erreklamatu nahi izan zuen, baina Pleguezueloren karta irakurri ostean, biak erreklamatzeko erabaki zuen. Amusatategirekin egin duen bezala, Jose Manuel Etxeitak Weylerri erakusteko Pleguezueloren aurkezpen karta bat bidaltzen du. Bide batez, Etxeitak, bere negozio ezberdinen egoeraz hitz egiten du, nahiko ezkorra da.

Francisco Pleguezuelo eta Jose Manuel Etxeitarren hurrengo kontaktua urte bereko Azaroaren 6an ematen da. Gutun honetan batez ere Pleguezuelo-

ren familiaz interesatzen da Etxeita, baina Weyler ere aipatzen du, nahiko doinu baikorrean, izan ere, badirudi Weylerrek modu onean hartu duela Pleguezueloren bisita.

1901.eko azaroaren 11an Jose Manuel Etxeitak arazo guzti hau, bere kide Ceferino de Portuondori jakinaraztea erabakitzen du. Karta bukatugabe badago ere, nahiko informazio kontatzen du karta honek, adibidez, Pleguezuelo eta Amusategi jarri dituela afera honen kudeatzaile bezala. Raimundo Abaroa eta Juan T. McLeod aipatzen dira. Kartaren doinua baikorra da.

Hurrengo urtean, 1902.eko urtarrilak 16an, Jose Manuel Etxeitak Rufino Amusategiri karta bat bidaltzen dio, non Weyler kasuaz mintzatzen den. Badirudi Weylerrek ere modu onean hartu duela Amusategi, Pleguezuelorekin egin duen bezala. Gutun honetan beste gauza erakusgarri bat azaltzen da; Etxeitak kontatzen duenez, Raimundo Abaroari, Itsas Konpainian dituen akzioak saltzeko agindua eman dio.

1902.eko martxoak 3an, Etxeitak Amusategiri, honek aurretiaz bidalitako gutun baten erantzuna bidaltzen dio. Gaia, zorren kobratzea da, eta gutunaren doinua, baikortasunezkoa da. Izan ere, printzipioz, arrazoia onartu izan zaie "Echeita y Portuondo" elkarteko kideei.

1902. urtean zehar, Weyler kasuak zeresanak emango ditu Jose Manuel Etxeitarren inguruan. Ekainak 2an karta bat idazten dio Etxeitak Amusategi jaunari. Badirudi, Amusategi jaunak, aurretik (maiatzaren 24an) karta bat idatzi duela, ezkortasunez betetako karta bat. Gutun horretan Jose Manuel Etxeitari, Weylerren aurreko (Weyler jada guda ministroa da) beste ordezkari bat izendatzeko baimena ematen dio. Argi dago beraz, Amusategik, ez duela bere lana ontzat ematen. Hala ere, Etxeitak lasaitu egiten du, eta bere onarpena duela jakinarazten dio Amusategiri.

Hilabete bereko 10ean, Larrinaga jaunari gutun bat bidaltzen dio Liverpoolera, afera honetaz hitz egiteko asmoz. Amusategiren karta kopiatzen dio, eta badirudi (baliteke maiatzaren 24koa dela), eta karta honen arabera, nahiz eta gobernukideen arreta jaso duen, badirudi Gobernuak ez duela kolonia ohietan pilatu dituen zorrak ordaintzeko asmorik hauek asko baitira. Amusategiren karta interes handikoa da, eta Gobernuak zergak zergatik ordaintzen ez dituen kontatzen du; arrazoi ezberdinak zerrendatuz: bere influentzia eza, zorren kopuru handia eta azkenik borondate eza, bai Ogasun Ministroaren (Rodrigáñez) aldetik (Banketxeen Legea aurrera ateratzeko bakarrik jarri izan delako), baita ere presio handiarengatik, zor bat kitatuz gero, zorrak kobratu behar duten besteek egingo luketen presioarengatik. Beraz Etxeitak, bere Liverpooleko kideei beste ordezkari bat izendatzearen alternatiba planteatzen die, Amusategik baino kontaktu politiko handiagoak dituen ordezkari berri bat. Halere, uztailak 7an Etxeitak Amusategiri idazten dion gutun baten, (gutun hau, berez Bermeoko Nautika Eskolako azterketez mintzatzen da), bere ordezkari karguan jarraitzeko eskatzen dio.



Manilako Rosario kalea. Iturria: www.montinola.org

1903.ean ere, Weyler kasuz mintzatzen jarraituko du Jose Manuel Etxe-itak. Urte honetako Uztailak 16an, Antonio G. Bejar deituriko gizon madrildar bati gutun bat idazten dio Etxe-itak. Bertan, eskerrak ematen dizkio, izan ere apirilak 23an Bejarrek bidalitako karta batean, mundakarrak madrildarrari Bejarrek Etxe-itaren ordezkari-tza eramateko eskaintza eskertzen dio. Hala ere, badirudi, Etxe-ita ez dela Bejarretaz gehiegi fidatzen, uztailak 20an beste karta bat bidaltzen bait dio Amusatagiri, eta bertan, Bejarren eskaintza komentatzerakoan, "misteriot-su" bezala kalifikatzen bait ditu Etxe-itak. Bejarri erantzun aurretik, erantzunaren edukia, bada ez bada, Amusatagirekin kontsultatu nahi du.

Abuztuak 20an, Etxe-itak, Amusatagiri, Ángel de Muniategiren aurkezpen karta bat aurkezten dio. Karta honetan Ángel de Muniategiren merituak eta bizitza laburbiltzen dira. Muniategi, familia aberats aristokratiko baten kidea denez gero, Gobernuarekin harreman onetan egon daiteke. Horregatik, badirudi, bitartekaritza Amusatagiri laguntzeko, kontaktu hau eskaintzen diola. Amusatagi berari egun berdinean bidalitako karta batetan, Muniategi, mundakar jatorrizkoa, Bejarren laguna dela esaten dio. Maniobra hauen emaitza irailak 20an ikusiko dugu. Urte horretan, Itsasoz Bestaldeko Kreditudunen elkarteko idazkariari idatzitako gutun batean, Etxe-itak, Amusatagiren ordezkari posizioa berresten du. Badirudi, konfiantza handia duela Amusatagirengan, eta Muniategi jokoan sartzeak, Etxe-itaren posizioa indartu duela ematen du.

Lehen fruituak, azken finean, 1904.eko abuztuak 6an ikusiko ditu Etxeitak. egun horretan, Rufino de Amusatagiri bidalitako karta batean hainbeste itxaroten zuen berria, hots, Espainiako Gorteek, itsasoz bestaldeko zorrak ordaintzeko erabakia hartu dutenarena, egunkariaren bidez hartu duela azaltzen du. Etxeita alde batetik kezu da, Estatuak behar zen unean ordaindu ez zuelako, baina beste alde batetik poza adierazten du, azkenik kobratzera doalako. Beste alde batetik, Itsas Konpainiari buruz kezka larriak adierazten ditu Etxeitak, krisi sakonean omen dagoelako eta kompetentziari aurre egiteko ezgai delako. Etxeitak adierazten duenez, ez zaio azken urteko Memoria iritsi, eta horrek asko kezkatzen du.

Amusatagik, 1905.eko urtarrilak 6an erantzuten dio Etxeitari, oporretan egon delako berandutzen da hainbeste. Amusatagiren kartaren esaldi asko irakurtezinak dira, baina muinoa ulertu egiten da. Amusatagik, Osasun Ministerioko Idazkariordearekin hitz egin du, Viesca jaunarekin; eta honek dioenez, 1888-89ko posta-zerbitzuak kobratzeko, "Echeita y Portuondo" elkarteak, jada existitzen ez denez, likidazio efektiboaren (gogora dezagun, Filipinen garaian "Echeita y Portuondo" elkarteak disolbatu egin zela, beste batzuekin batera, Manilako Itsas Konpainia sortzeko) prozesu bat eraman behar dela, bestela, Jose Manuel Etxeita eta Ceferino de Portuondo jaunek, ez lukete zor hauek kobratzeko eskubiderik (existitzen ez den elkarte baten izenean jarri baitute helegitea). Ordura arte, Etxeitak, notaritza batean lortutako likidazioaren froga aurkeztu zuen, baina Viesca jaunaren arabera, hau ez da nahikoa. Beraz, hau jakinda, hurrengo egunean, maiatzak 7an Etxeita Ceferino de Portuondorekin kontaktuan jartzen da, "Echeita y Portuondo" elkartearen disolbatzeari modu ofizialean ekiteko.

Maiatzean bertan, bata 13an eta bestea data ezezagun batean, Jose Manuel Etxeitak, karta bi bidaltzen dizkio Rufino de Amusatagiri "Echeita y Portuondo" elkartearen disolbatzeari ekin diezaion; eta honela, zorrak kobratzeko aukera izan dezaten Jose Manuel Etxeita eta Ceferino de Portuondok.

Zorren kobratze efektiboaren lehen berri 1905eko urtarrilak 26an aurkitzen dugu, Larrinaga jaunei Liverpoolera idatzitako karta batetan. Hemen datu interesgarriak ditugu; batez ere, Amusatagi Etxeitarrentzat afera honetan, 1899.etik lanean dabilela esaten zaigu, beraz, gutuneria honetatik at geratzen den data batetan. Amusatagiren karta batzuen kopia bidaltzen die Larrinagatarrei, eta azkenik berri ona ematen die, 16.960 dolar filipinar kobratzera doala.

Azkenik maiatzak 29an, Ceferino de Portuondori bidalitako karta bukatu-gabe bat dugu. Estatuak zorrak nola kitatuko dituen argitzen dio, badirudi, lehenbizi, itsasoz bestaldeko funtzionario ohien ordaindu gabeko soldaten zorrak kitatuko dituela, eta geroago enpresa ezberdinei zorretan edukitako dirua. Amusatagirekin geroago hitz egitea akordatzen du Etxeitak.

Hona arte, Estatuaren zorren afera. Azkenean, lortu zuten Etxeitak eta Portuondok Estatuak zor zien dirua kobratzea, hala ere frango kostatu zitzaion. Badirudi afera honen gorabeherek (kartetan askotan pasatzen zen Etxeita baikortasunetik ezkortasunera, eta alderantziz, eta hori gorabeheren seinale da), energia asko jan ziotela Etxeitari, azkenean bere helburua lortu zuen arren.

Itsas Konpainia eta New Yorkeko Korporazioaren eskaintza

1902.eko urtarrilaren bukaeran, Itsas Konpainia honen inguruan gertakizun bat gertatzen da. Egun horretako urtarrilak 29an, Jose Manuel Etxeitar bere bazkide ezberdinei gutun batzuk bidaltzen dizkie. Gutun hauek, egitura aldetik nahiko antzekoak dira; denek egun berdinean, Etxeitar, Manilan dagoen Raimundo de Abaroaren jasotako telegramaren kopia idatzi bat dakarte. Telegrama honek honelakoa dakar:

Newyorktar sindikatu (sindikatu hitzarekin enpresa esan nahi du), botere-tsuak Juanito (McLeod) deitu du, 90 egunetan Itsas Konpainiaren erosketa negoziatzeko. Aldecoa, Reyes eta McLeod ados, 650 inguru akzio bakoitzarengatik. Juanitok beste akziodunen adostasuna eskatzen du orain. Erantzun telegramaz.

Gero, Etxeitar gutunetan azaltzen duenez gero, Aldecoa, Reyes eta McLeod, akziodun nagusiak dira, eta salmentaren baldintzekin (650 filipinar peso akzioko, gutxi-gora-behera) nahiko ados daude, baina beste akziodunen baiezkoa behar dute, izan ere, Estatu Batuetako enpresak, Konpainiaren akzioen gehiengoa erosi nahi du, ez akzio batzuk soilik. Honegatik, Etxeitar, beste akziodunei gutunak bidaltzen dizkie, euren adostasuna edo desadostasuna hainbat eta azkarren erakuts dezaten. Modu honetako zenbait karta bidaltzen ditu urtarrilaren 29 eta 30; Larrinagatarrei (Liverpool), León de Longari (Bilbo), José de Bedoyari (Cádiz), Rufino de Amusatagiri (Madril), Federico de la Pedrosari (Córdoba), Felix de Larrinagari (Bilbora bidaltzen dio gutuna, nahiz eta Félix de Larrinaga oñatiarra izan), Teodoro Arana gernikarri (honen emazte Cruz de Larrinagak ditu akzioak) eta Antonio de Ozamiz bilbotarrari (azken honen akzioak bere emazte Carmen de Amusatagiren izenean eta Andersh jaunaren izenean daude). Beraz, hauek ere Itsas Konpainiako akziodunak direla suposatu dezakegu. Etxeitar, salmenta honekin ados dagoela esaten du. Batez ere garrantzitsuak dira León de Longari eta Teodoro de Arana/Cruz Larrinagari bidalitako gutunak. Izan ere, León de Longa eta Cruz Larrinaga aspaldiko bazkideak ditu Etxeitar, ez bakarrik Itsas Konpainian, baizik eta “Echeita y Portuondo” elkartean. Beraz, Longaren, Arana-Larrinaga ezkontideen eta Etxeitarren akzioak elkarturik daudenez gero, Jose Manuel Etxeitar ahal bezain laster behar du hauen erantzuna.

Hurrengo pausua, hurrengo datetan bidalitako karta batean azaltzen da. Gutun hau, osorik ez badago ere, nik León de Longari bidalitako karta bat dela atzematen dut. Gutun honetan, salmentari Teodoro de Aranak emandako baiezkoaz hitz egiten da, eta geroago, “zure adostasunaz” hitz egiten du Etxeitar; jarraian Abaroari “Echeita y Portuondo” elkartearen izenean, akzioen salmentari argi berdea ematen dion telegrama bat bidali duela esateko. Beraz, “Echeita y Portuondo” elkartean, Jose Manuel Etxeita eta Cruz Larrinaga-Teodoro Arana bikoteaz gain, beste kidea León de Longa denez; erraz asma dezakegu gutun honen hartzailea León de Longa dela. Are argiago geratzen da, urtarrilaren 31an Etxeitar Abaroari bidali zion telegrama ikusten badugu. Telegrama honetan hiru hitz agertzen dira: “Conforme negocio acciones” eta sinadura ez da Jose Manuel Etxeitarrena, “Echeita y Portuondo”

elkartearena baizik. Beraz Etxeita, Longa, Arana eta Cruz Larrinaga, akzioak saltzarekin ados daudela ikus dezakegu. Otsailak 2an Abaroa berari, gutun berri bat idazten dio Etxeitak, eta bertan, aferaz luzeago mintzatzen da. Berak bidalitako telegrama, bazkide ezberdinei zabaldu diela jakinarazten dio Etxeitak, baita ere, “Echeita y Portuondo” elkarteko bazkideen adostasuna erabatekoa dela. Datu berri bat azaltzen da gutun honetan, “Echeita y Portuondo” elkartearen akzio banaketari buruzkoa. Banaketaren arabera, elkarteko 15 akzio izango litzuzke Jose Manuel Etxeitak, beste 15 León de Longak eta 20 Cruz de Larrinagak.

Hala ere, salmenta honekin ados egongo ziren kideak ez dira bakarrik “Echeita y Portuondo” elkarteko kideak. Otsailak 6an Federico De La Pedrosari bidalitako gutun baten, zoriendu egiten du Etxeitak, salmentaren negozioan parte hartzea erabaki izan duelako. Etxeitak, beste akziodun batzuek erabaki berdina hartu dutela esaten du. Hala ere, datu ezkor bat gehitzen du, Konpainiaren egoera txarra dela eta, litekeena dela akzio bakoitza 600 pesotara jaitea. Itsas Konpainiaren Estatutuen arabera, akzioak saltzeko prozedura azaltzen dio Etxeitak De La Pedrosari, eta hoberena, saldu nahi dituen akzioak, Abaroaren eskuetan uztea dela dio, honek Manilan egonagatik, Konpainiaren egoitzan dagoenez, akzio hauek estatubatuarrei saltzerakoan, dokumentu legalak sinatzeko posizio hobean dagoelako. Otsailaren 8an José de Bedoyari idazten dio. Karta honetan dioenagatik badirudi Bedoya akzioak saltzarekin ados dagoela. Etxeitak, salmentarekin adostasuna adierazten duen telegrama bidaltzeak zenbat kostatzen duen esaten dio Bedoyari; hain zuzen ere Manilarako telegrama batek 21 ogerleko kostatzen du. Telegrama igortzea garestiegia suerta daitekeenez (Bedoyak 6 akzio zituen soilik). Akziodun salmenta ezberdinei buruz ari da oraingoan Etxeita. Salmentarekin ados dauden akziodunen zerranda bidaltzen dio Etxeitak Bedoyari, akziodun horiek hauek izanik: Cruz Larrinaga (37 akzio), Félix Larrinaga (37 akzio), León de Longa (15 akzio), Jose Manuel Etxeita (15 akzio), Federico De La Pedrosa (14 akzio), Carmen Amusategi (4 akzio), Andersh jauna (4 akzio) eta “Echeita y Portuondo” (3 akzio).

Badirudi, datu hauek, lehen azaldutakoekiko kontraesankorrak direla. Izan ere, aurreko gutun baten esan dugu, “Echeita y Portuondo” elkartearen barruan, Larrinagak 20 akzio zituela eta Etxeitak eta Longak 15 bakoitzak. Hemengo datuen arabera, Etxeita eta Longaren datuak bat datoz lehenagokoeekin, ez ordea Cruz Larrinagarenak; eta gainera, “Echeita y Portuondo” elkar-tea beste akziodun bat bezala azaltzen da. Nik ondorioztatzen dudan arabera; badirudi, Cruz Larrinagaren, 37 akzioetatik 20, bereak direla indibidualki, eta beste 17 “Echeita y Portuondoren” barnekoak. Honela, bertan azaltzen diren “Echeita y Portuondo” elkartearen izeneko 3 akzioekin batera 20 egingo litzuzke.

Otsailaren 13an, Etxeitak Ceferino de Portuondori bidaltzen dio gutuna, aurreko negoziazioak eta salmentaren nondik norakoak laburbilduz. Izan ere, Ceferino de Portuondo, “Echeita y Portuondo” elkarteko fundatzaile bat izanik eta Etxeitarekin adiskidetasun handi batek lotzen duelako; Jose Manuel Etxeitak, laguna jakinaren gainean utzi nahi du.

Otsailaren 14ean, Etxeitak Abaroari idatziko zion gutuna, Itsas Konpainiaren barne egoera laburbilduz. Juan T. McLeod administratzailearen lanaren nondik-norakoak kontatzen dizkio Abaroari. Estatubatuarrek Konpainia erosteko itxaropen handia du Etxeitak.

Martxoaren 3an, Etxeitak Antonio de Ozamizi idazten dio. Karta hau bukatu gabe dago, baina edukia, AEBetako korporazio horrekiko negoziatortaz aritzen da; gogoratu behar dugu, Ozamizen emazte Carmen Amusatetik, 4 akzio zituela. Gutun honetan azaltzen denez, Juan T. McLeod, Itsas Konpainiaren administratzailea, New Yorkera joan da, estatubatuarrekin negoziatuzera. Etxeitarren arabera, oraindik, salmenta eman arte nahiko denbora pasatuko da. Hasierako baikortasun osotik, nolabaiteko zuhurtasun batetara pasatzen hasten da Etxeita.

Maiatzak 6an Antonio de Ozamizi bidaltzen dion gutunean, ezkortasunaren lehen zantzuak azalduz joango dira. McLeod jaunak, akzioak saltzeko jarritako baldintzak agertzen dira gutun honetan; lehena, akzio bakoitza 650 peso filipinarretan saltzea, bigarrena, horietako akzio baten erosketa 90 egunetan ordaindua izatea, hirugarrena, 1901.eko irabazi osoak, akzio saltzaileentzat izatea eta laugarrena, enpresa estatubatuarrek akziodunei akzio hauek erostearren zor dien dirua 90 egunetan ordaintzen ez badu, hitzarmena bertan behera uztea. New Yorkeko enpresak ez zituen bat-batean halako baldintza guztiak onartu eta negoziaketak abuztura arte atzeratzea proposatu zuen. Kasu horretan McLeod-ek, 1902.eko lehen sei hilabeteetako irabaziak, saltzaileentzat izan beharko zirela esaten du; eta enpresan sortzen ari den ezinegonak sortu ditzakeen galerak konpentsatzeko, eskaintako akzioen balioaren %20ko garantia bat eskatu zion enpresari. Baldintza berri hauek, estatubatuar enpresarengan zalantzak piztu zituzten.

Maiatzak 14ean Abaroari idatzitako gutun batean, ezkortasuna eta negoziaketaren porrotaren aurreko beldurra erakusten du Etxeitak. Etxeita akziodun den beste Konpainia batetako akzioak, Elekrika Konpainiakoak, saltzeko esaten dio, Etxeitak Abaroari. Maiatzak 19an McLeod jaunari karta bat idazten dio, baina McLeod ez dago AEBetan, Hanburgon baizik. Horregatik, antzeman dezakegu, New Yorkeko enpresarekiko negoziatioak etenda daudela. Karta honetan, enpresaren "zalantzak aipatzen dira, baita, Manilan dauden espainiar kapitain eta itsas-funtzionarioen etorkizunarengatiko kezka.

Maiatzak 26 eta 27arean, Etxeitak Itsas Konpainiako bazkide ezberdinei gutun batzuk bidaltzen dizkie. Gutun hauetan, Itsas Konpainiaren irabazien letrak zenbatzen dira, baina estatubatuar partzuergoarekin izaten ari diren negoziaketetaz ere mintzatzen da Etxeita. Negoziaketa hauek, newyorktarrek negoziaketei abuztuan berrekiteko Manilako Konpainiaren baldintzak onartu ez zituztenez, momentuz bertan behera geratu direla esaten du Etxeitak, ez alde batetako ez besteko konpromisorik gabe. Agian, abuztuan berriz zabalduko direla esaten du Etxeitak, baina elkarrizketak berriz zabalduko direnerako bermerik ez dagoenez gero, akziodunak euren akzioak edonori saltzeko aske direla jakinarazten die Etxeitak. Maiatzaren 31an León de Longari idazten dio, honen iritzia jakiteko.

Ekainak 9an, Jose Manuel Etxeitak, José de Bedoya kadiztarrari idazten dio. Badirudi, Bedoyak, negoziaketan gainean gertaturiko azken gertakizunak zirela eta, akzioen salmentaren gainean zalantzak dituela. Etxeitaren aholkua, ahalik eta arinen saltzea da; izan ere, AEBetako partzuergoak, negoziaketak bertan behera utzi ditu, baina Filipinak AEBen eskuetan daudenez gero, partzuergo honek AEBetako Gobernuaren gainean eta Gobernu honek Filipinen gainean hartzen dituen erabakien gainean zein influentzia izan dezakeen kontutan hartuta; hoberena ahalik eta arinen saltzea dela, AEBetako Gobernuaren hurrengo erabakiak, Konpainiaren interesen aurkakoak izan daitezkeelako. Halere, modu berdinean, saldu eta gero, diru hori Filipinetatik momentuz ez ateratzeko esaten dio Etxeitak Bedoyari, arantzelak asko igo direlako.

Uztailaren 28an, Raimundo de Abaroari idazten dio. Karta honetan, Itsas Konpainiaren akziodunen artean, desadostasunak agertzen ari direla azalerazen du. Nire irakurketaren arabera, agian hauxe izan zen erosleen manio-bren eta luzamenduen helburua, aldeko erosketa bat lortzeko. Akzioa 650 pesotan saltzearen aurkakoa, Larrinaga da, Liverpoolekoa.

Hemendik aurrera, ez da negoziaketa hauetaz askoz gehiago hitz egingo; baina horrekin ez dira Abaroaren arazoak bukatuko. Urrian adibidez, Itsas Konpainiak, arazoak izango zituen grebalari batzuekin. Azaro aldera konponduko zen greba hau, Etxeitaren eta Abaroaren onurarako (noski, Etxeitak eta Abaroak kolonietako oligarkiaren interesak defendatzen zituzten, ez langileenak).

Abenduan, estatubatuarren Gobernuak, Filipinetako portuetan kabotaia askatasuna ezartzen du. Honek, espainiar konpainien pribilegioen bukaera esan nahi du, beraz Itsas Konpainiarentzat kaltegarria da. Honen berri Abenduaren 1eko gutun batean dugu lehen aldiz, baina erakusgarriena, Abenduaren azken egunetako baten, Abaroari bidalitako gutun batean agertzen den esaldia da: Etxeitak kabotaia askatasun honekin “gure interesak amildegira” doazela esaten du.

Hona artekoa izan da Manilako Itsas Konpainia eta AEBen arteko harremani buruzkoa. Ikus bezala, harremanak, oso zailak izan dira, gorabehera askorekin eta negoziaketa ilunekin, bukaeran, AEBetako Gobernuaren ekimen hori gertatu zelarik.

Itsas Konpainia eta urre patroia ezarpena Filipinetan

1902. urtean, Jose Manuel Etxeitaren gutun bat irakurrita, AEBetako Gobernuak, Filipinetan diru-neurri bezala, urre-patroia ezartzea erabaki zuela atzematen da. Gutuna, 1902.eko ekainak 12koa da, Raimundo Abaroari bidalitakoa. Badirudi, urre patroia ezarri eta berehala, txanpon espainiarra eta mexikarra desagertu beharko lirakekeela (Mexikon eta Espainian zilarpatroian oinarritutako txanponak erabiltzen ziren). Urre-patroian oinarritutako txanpon bakoitzak, aurreko bi txanponen prezioa izango lukeen. Honek

garrantzi handia izango du, Etxeita eta Abaroaren negoziorentzat, izan ere, Elekrika Konpainiako akzio guztiak saltzea pentsatzetik, oraindik aurrera, gordetzea komenigarriagoa dela pentsatzera pasako da Etxeita (*La Electricista* enpresari buruz geroago mintzatuko gara). Etxeitaren arabera, diru berriek, Filipinetako Gobernuaren ikurra eramango luketen, Filipinen independen-tziaren erakusgarri bezala. Azaroaren 21eko beste gutun baten Jose Manuel Etxeitak iritzi hau berretsiko du.

Urre patrioiaren ezarpenaren arabera, diruaren edota dibisen balioa (urre-patroia ezarri duten tokietan), urrearekin konparagarria da, eta diruak, urrearen kopuru baliokide bategatik aldarria izan beharko luke. Urre patrioiaren defendatzaile handienetako bat, Britainiar Inperioa izan zen, eta honen influentzian zeuden herriek (AEBek Ingalaterraren influentzia kultural handia zuten), Frantzia, zilar patrioiaren defendatzaile handiena zelarik. XX. mendearen zati handi baten, urre-patroia, patrioi internazionala izan zen. Atzeman dezakegu, urre-patrioarekin batera AEBek Filipinetan estatubatuar dolarra, edota txanpon honetan oinarrituriko txanpon bat, ezarriko dutela.

Etxeitak Abaroari otsailak 4ean idatzitako karta batean agertzen da urre patrioiari buruzko beste aipamen bat. Hala ere gauza gutxi jartzen ditu, izan ere, gutuna ez da, berez horri buruz hitz egitekoa, *La Electricista* Konpainiari buruz hitz egiten du gehienbat. Etxeitaren arabera, berri horretaz, prentsan enteratu da, baina presta artikulu horretan, AEBren erabakiaz gain, datarik jartzen ez duela dio Etxeitak, ezta erabaki honen xehetasunik.

Otsailaren 22an bidalitako beste karta batean, Jose Manuel Etxeitak urre patrioiaren ezarpenaren ondorioak kalkulatu ditu. Urre patrioa ezartzen den momentuan, Espainiaren harreman komertzialak (momentu horretan Espainian zilar patrioa zegoen), minduta geratu ahal ziren. Izan ere, Espainiar Gobernuak urre patrioa ezarri nahi duela ere esaten du Etxeitak. Gutxinaka-gutxinaka, nazioarteko merkatal erlazioetan, urre patrioa gailenduz joango da. Hala ere, martxoak 10ean, Etxeitak berriz idazten du, aurreko kalkulak okerrak zirela esanaz. Martxoak 24eko gutunean, Etxeitak, urre-patroia hainbat eta lasterren ezarria izatea nahiko lukeela esaten dio; baina litekeena, 1904.eko hasieran ezartzea izango litzatekeela. Apirilak 6ko gutun batean, xehetasun handiagoak agertzen dira. Gutun honetan, Etxeitak dioenez, New Yorkeko "Novedades" egunkarian irakur duenez, 1904.eko urtarrila baino lehen, espainiar eta mexikar txanponak, Filipinetako salerosketa-zirkulaziotik atera behar direla. Beraz, badirudi, 1904.eko urtarrilean, txanpon aldaketa eman zela. Hala ere, Abaroari bidalitako gutunak hemen bukatzen direnez gero (urriaren 23ko gutun batek, Abaroa Mundakan dagoela esaten du), gai honi buruz ez dugu informazio gehiagorik. Abaroa eta Etxeita, etxe berria eraikitzeko obrei adi egongo direla pentsa dezakegu. Euren arteko gutunik ez dago, beraz, Etxeitak ez ditu gai honi buruzko bere iritziak idatziz azalduko. 1904.eko martxoak 21ean McLeod-i bidalitako gutun batean, Raimundo de Abaroa, Mundakako alkate zela esaten dio, eta baita hilerrri berri bat egitea bere asmoetan dela. Beraz, badirudi hemendik aurrera, Etxeitak eta Abaroak euren artean hitz egingo zutela, Konpainiaren etorkizunaz, baina ez idatziz guk interpretatzeko moduan.

Itsas Konpainia eta Reyes auzia

Itsas Konpainiak izango zuen beste arazoetariko bat, bi enplegatu ohik, Reyes anaiek, Itsas Konpainia beraren aurka jarritako salaketa batetatik etorri zen. Honi buruz, Etxeita, ekainaren 6an mintzatzen da lehen aldiz. Etxeitaren idatziaren doinuaren arabera, badirudi salaketa honen arriskuari ez diola garrantzi handirik ematen. Etxeitak aditzera ematen duenez, Rafael eta Francisco Reyes jaunak, Itsas Konpainiaren zuzendariak izan ziren; eta 1897.ean Batzar Nagusiak kargutik kendu zituztenez gero, urte horretako irabazien %1a eskatzeko aurkeztu dute helegite hau. Etxeitak ez du helegite hau seriotzat hartzen, izan ere Reyes anaiak Konpainiaren akzio-dunak izanik, euren interesen aurka doala deritzo. Gainera Etxeitaren arabera, ez dute salaketa hau aurkezteko zilegitasunik, izan ere, Itsas Konpainiaren baitan, erabakitzeko boterea, Batzar Nagusiak duenez, eta Arautegiaren arabera, botere exekutiboa izaki; Batzarrak zuzendaria kargutik kentzeko eskubidea du (Etxeitak, Moreno Lacalle izeneko gizon bat, jadanik hila zegoena, aipatzen du bere tesia indartzeko). Gainera, gizon horiek kargutik kentzean, batzarkide guztiei soldata murriztea erabaki omen zuen, eta inork ez zuen protestatu, Reyes jaunek izan ezik. Etxeitaren hitzak irakurriz, badirudi, salaketa honek arrazoi-gabeko kexa bat duela oinarrian.

Urte horretako irailaren 9an, beste gutun bat bidaltzen dio Etxeitak Abaroari, non Reyes anaien salaketaz hitz egiten duen. Badirudi, hasiera baten uztailaren 29an eman behar zela epaia, baina Etxeitak, Abaroaren abuztuaren 3ko gutunean ezer esan ez zuenez, beste egun batetarako atzeratu dutela dirudi. Etxeitaren gutunaren arabera, bi aldeek dute epaia irabazteko esperantza; bai Rafael Reyesek zein Itsas Konpainiak. Etxeitak hau komentatzen du Reyesen itxaropenetaz: “benetan damutuko da”.

Hala ere baikortasun doinu hau, urriaren 16an desagertuko da. Egun horretan, Abaroari idatziriko gutun batean, Reyes auzia “okertzeaz” damutzen da Etxeita. Mundakarrak, Itsas Konpainiak, abokatu onak kontratatzean eta epaiketaren emaitza kontrakoa izanez gero, Auzitegi Gorenean helegite bat jartzean itxaropena jartzen du. Azaroaren 5ean, Etxeita, Itsas Konpainiako Batzar Nagusiak, Reyes auziaren epaiari helegitea jartzearen erabakia aho-batez hartu izanaz pozten da. Berri hau, Abaroak irailaren 21ean bidalitako karta baten bidez hartu du. Beraz, Konpainiak helegitea jarri badu, pentsa dezakegu, lehen instantzian, auzia galdu egin duela. Auzi hau ez da gehiago aipatuko gutuneria honetan, baina 1903.eko martxoaren 24an, Itsas Konpainiaren Arautegian aldaketa bat ematen da, zuzendariak izendatzearen gainean. Badirudi zuzendariak modu pertsonalean izendatzeko erabakia hartu dela, baita bakoitzari soldata finko bat ordaintzearena. Jose Manuel Etxeita, soldata handi hauen aurka azalduko da. Aldaketa hau “Echeita y Portuondo” elkartearen kideen eta Raimundo Abaroaren interesen aurkakoa omen da, beraz hortik gutxira, akzioak saldu egingo dituzte Etxeitak eta Abaroak (gainera Abaroak laster Mundakara itzuliko da, eta alkatetza izango da).

Jose Manuel Etxeita eta “Minas de la Bernilla” elkarte

Manilako Itsas Konpainiaz eta *La Electricista* elkarteaz gain, *Minas de la Bernilla* meatzaritza konpainian ere, Jose Manuel Etxeitak akzioak izango ditu.

Meatzaritza konpainia hau 1902.eko martxoan eta apirilaren artean bidalitako karta batzuetan aipatzen du Etxeitak. Huetariko lehen gutuna martxoaren 7an bidaliko dio Juan Bautista de Larrinagari, Glasgow hirira. Larrinagari kontatzen dionaren arabera, Etxeitak, meatze konpainiaren lanen Memoria eta urteko balantzea; Larrinagari zuzendutakoak, Mundakara, Etxeiren etxera bidali ditu. Beraz Etxeitak karta honekin batera, Memoria eta Adolfo Chauton Sainz jaunaren karta bat (antzematen dut Chauton Sainz, akziodun garrantzitsu bat dela), bidaltzen dizkio Larrinagari. Badirudi, *Minas de la Bernilla* elkarteak, Ohiz Kanpoko Batzar bat deitu duela non konpainiaren jarraipena edota disolbatzea erabaki behar den. Izan ere, enpresa hau, Memoriak omen dioenez, porrot bat izan da, bere jabetzako meatzeak saldu egin zituelako, kaskarragoak ziren beste batzuk erosteko. Karta honetan, “Konpainia” bat aipatzen da, badirudi Itsas Konpainia dela, zeinek *Minas de la Bernilla* elkartearen gainean, eragin handia duen. Beraz hurrengo Ohiz Kanpoko Batzarrean, elkarte hau disolbatzea, edo meatze berriak ustiatzeko elkartearekin aurrera egitea, erabaki behar izango da. Ohiz Kanpoko Batzar hau, martxoaren 17rako izan da deitua.



Santa Cruz Manila, P. I. Iturria: www.montinola.org

Maiatzaren 12an, Jose Manuel Etxeitak, Adolfo Chauton y Sainz jaunari idazten dio. Etxeitak barkamena eskatzen dio, Ohiz Kanpoko Batzarrera joango ez delako, baina *Minas de la Bernilla* elkarteak aurrera egitea erabakitzen badu, bere akzioak mantentzea nahi duela esaten dio Etxeitak Chautoni.

Martxoaren 24an, berriz idazten dio Etxeitak Larrinagari. Etxeitaren gutunak dioenez, *Minas de la Bernilla* elkartearen Ohiz Kanpoko Batzarrak, meatze berrien ustiaketa kontratua bertan behera uztea eta elkarte disolbatzea erabaki du. Jose Manuel Etxeita oso ezkorra da erabaki honen aurrean, baina onartu beharra duela esaten du, erabaki hoberik ez zegoelako. Gutunarekin batera, batzarrak hitz egiten zuen egunkari baten orrialdea bidaltzen dio Etxeitak Larrinagari.

Apirilaren 2an, bere Zaragozako lagun Eduardo de Leteri bidalitako gutun baten, *Minas de la Bernilla* elkartearen gorabeherak kontatzen zizkion. Izan ere, meatze ingeniari batzuek, Santanderreko meatzeei buruz, guztiz aldeko informe batzuek idatzi eta gero sortu omen zen *Minas de la Bernilla* elkarte. Hala ere, elkarte honek dirua xahutu besterik ez zuen egin, hasieran, 200.000 tona ateratzea aurreikusten baziren azkenean 3.000 tona, eta kalitate txikikoak atera zituzten. Jose Manuel Etxeitak eta bere hurbileko pertsona batzuek (bere seme Salvador Etxeita aipatzen du), diru asko galdu omen zuten, "lagun batek negozio on baten bermea eman zigulako". Lagun hori, Adolfo Chauton Sainz dela uste dut nik. Gutun honen bukaeran, meatze negozioetan inbertitzaerakoan, kontuz ibiltzeko esaten dio, Jose Manuel Etxeitak Eduardo de Leteri.

Jose Manuel Etxeita eta "La Electricista" Konpainia

Etxeitaren interesetako beste enpresa bat, *La Electricista* konpainia zen: Hemen ere, Raimundo de Abaroa zen bere sozioetako bat. Hasieran, Etxeitaren gutunen artean *La Electricista* deituriko enpresa honen izena ez zen askotan agertzen, baina gero eta garrantzia handiagoa izango du, batez ere, 1902. urtetik aurrera. Apirilaren 22an dugu lehenengo aldiz elkarte honen berri. Egun horretan Etxeitak Abaroari idazten dio. Karta horretan, bere harridura adierazten du, izan ere, aurreko karta baten, Abaroak ez dio konpainia honetaz ezer ere ez esaten, konpainiak, gehienetan bere Batzar Nagusia martxoan egiten zuenean. Beraz Etxeitak, Batzar Nagusi horretako berrien ezaz bere kezka azaltzen du. Maiatzak 24ko beste gutun batetan, konpainia horren memoria jaso duela esaten dio Jose Manuel Etxeitak Raimundo Abaroari. Oso baikorra da enpresa honen inguruan, baina, urre-patroiarekin, Manilan diru-kanbioak Penintsulan baino altuagoak izango direlako, Abaroari akzioak izatea gomendatzen dio, dirua ateratzea baino gehiago. Ekainaren 12an, estatubatuarrek urre-patroia jartzera doazela enteratzen denean, Etxeitak bere akzioak ez saltzeko erabakia hartzen du. Uztailaren 28ko beste gutun batetan ere, Abaroa jaunari, *La Electricista* enpresako irabaziak akzioetan kobratzeko gomendatzen dio.

Hala ere, abuztuaren 11an, etxe berriaren prezioa garestia delako, Etxeitak *La Electricista* enpresako irabaziak diruetan kobratzeko eta hauek segi-

tuan bidaltzeko esaten dio. Izan ere, nahiz eta testuinguru ekonomikoa txarra izan, diru hori behar zuen Etxeitar etxe berria eraikitzeko. Abuztuaren 25ean, irabazi horiek kobratu dituela dio Etxeitar: 941,25\$.

Urriaren 28an bidalitako kartan, *La Electricista* konpainian gauzak asko aldatu direla jakin dezakegu. Izan ere, karta honetan, Etxeitarren arabera, beste konpainia batek (“sindikatu” da Etxeitar erabiliko hitza), *La Electricista* enpresak ihardun behar zuen tokietan dihardu. Honek, *La Electricista* enpresaren akzioen beherapena ekarriko zutenez, Etxeitar bere akzioak saltzea esaten dio Abaroari. Ezkortasun hau handitu egongo da azaroaren 5ean. Alde batetik saltzea beharrezkoa dela ikusten du Etxeitar, baina ez momentu horretan; Filipinetako eta Espainiako txanponen artean desberdintasun handiagoa dagoenean baizik. *La Electricista* enpresak Manilako argindarra kudeatzeko kontratua du baina kompetentziaren ostean ez dirudi horrek jarraituko duenik.

Abenduaren 11ko karta batean, Etxeitar Abaroari adierazten dion bezala, “El Comercio” egunkarian, Manilako fiskalak, *La Electricista* konpainia salatu egin duela ematen du. Hau eta estatubatuarren kompetentzia, biak batera, oso kaltegarriak izan daitezke.

1903.eko otsailaren 4an Etxeitar, kezkatuta karta bat bidaltzen dio Abaroari. Karta hau ezkortasunez beteta dago. Izan ere, *La Electricista* konpainiako Batzar Orokorrak, konpainia saltzea erabaki ez badu ere, bere Arautegia aldatu egin du, eta kapitala modu ezberdin baten banatzea erabaki du. Banaketa berri honen arabera, fundatzaileek boterea galduko luketen. Bestalde, karta honetan azaltzen denez, Abaroak, Etxeitarren 1975\$ ditu, baina Etxeitar ez bidaltzeko esaten dio, dibisa kanbioek hobera egin arte.

Jakina denez, laburrera, Raimundo de Abaroa Mundakara itzuliko da. Hala ere, ez da hemen bukatuko, *La Electricista* enpresari buruzko informazio gehiago aurkituko dugu, 1905.ean atez ere. Urte horretan, Jose Manuel Etxeitar lau gutun idazten dizkio Manilako Espainiar Filipinar Banketxeko zuzendariari. Izan ere, akzioak kobratu nahi ditu, eta horretarako, Abaroak bere akzioak, Bankuan entregatu ote dituen jakin nahi du. Apirilaren 19an beste karta bat bidaltzen dio, Filipinetako Banketxeko zuzendariari, are kezkatuago, eta aurreko postura berdina mantentzen du Etxeitar. Hala ere, azkenik dirua kobratu egingo du Etxeitar; horrela baieztatzen dute Etxeitar Banketxeko zuzendariari apirilak 26an eta maiatzak 6an bidalitako gutunek.

JOSE MANUEL ETXEITA ETA BERE ZALETASUNAK

Jose Manuel Etxeitar mintzatzerakoan bi zaletasun aipatzen ditut hemen, Agian “zaletasun” hitza ez da egokiena ekimen hauek definitzeko, baina beste hitz hoberen ezean, bere jarduera profesionalak ez diren zeregin hauek “zaletasun” bezala hartu ditut nik. Izan ere, jada, Manilatik itzullita, Jose Manuel Etxeita, bere konpainiez ahortzi gabe; Manilan egin ezin zuen jarduera batean buru-belarri jartzen da, hain zuzen ere, marinelen formakuntzako Bilboko itsas eskola baten inplikatzean, edota zenbait egunkariren harpide-

dun (beraz, irakurle sutsu) egitean. Itsas Eskola, etorkizuneko marinela prestatzeko eta egunkariak, gaurkotasunari adi egoteko; horiek ziren Jose Manuel Etxeitaren zaletasunetako bi. Bestalde, esan beharra dago, Etxeita harpidedun zen egunkari batzuk, itsasontzietaz eta marinelen bizimoduaz eta ogibideaz mintzatzen zirela. Honek, argi uzten du Jose Manuel Etxeita itsas sen sakoneko gizona dela, itsasotik aparte bizi ezin dena; gauza nahiko arrunta eta ulerterraza, Etxeita mundakar peto-petoa izanik.

Lehen komentatu dugun bezala, Jose Manuel Etxeitaren zaletasunetako bat, egunkariak ziren; eta hauen artean, *La Unión* egunkaria. Bere lagun Eduardo de Leteri esplikatzon dion bezala (gogoratu Eduardo de Leteri eta Jose Manuel Etxeitaren artean adiskidetasun handia dagoela; Etxeita, meaztezen negozioan izan zuen porrota Leteri kontatzera iritsi zen), Letek zor dion diruarekin, *La Unión* egunkariaren harpidedun egingo da. Jose Manuel Etxeita jaunak, egunkari hau nahiago du ordura arte irakurtzen zuen *El Comercio* baino, azken hau, AEBen aldekoegia dela esaten du. Hau 1900.eko Abenduaren 26ko karta batean esaten du Etxeitak.

Hurrengo urteko urtarrilaren 13an ordea, Etxeitak, egunkari horretarako harpidetza, sei hilabete bakoitzeko 7\$tkoa (10,50\$tkoa Filipinetan, baina diru-kanbioagatik, Filipinetan, produktuak, Penintsularekin konparatuta 50% garestiagoak zirenez, Iberiar Penintsulan prezio 7\$etan geratzen zen) dela esaten du, beraz, 35 pezetakoa. Etxeitak, sei hilabeteko batetarako, hau da, Ekaina arte, harpidetuko dela esaten dio Leteri. Hala ere, zazpi egun geroago, Urtarrilak 20an, beste sei hilabeteko batetarako harpidetza egitea erabakitzen du Etxeitak, Leteri bidaltzen dion karta batean adierazten duen bezala.

La Unión egunkaria, badirudi, "orokortasuneko" egunkari bat zela, hau da, denetariko informazioa eskaintzen zuela. Hala ere, esan bezala, Jose Manuel Etxeita, itsasgizon betea izanik, bere marinela izateak, itsas gaiari buruzko aldizkariaren harpidedun egitera bultzatu zuen. Halako aldizkari bat, *El Mundo Naval Ilustrado* zen. 1901.eko azaroak 7an edo 9an (data ez da ondo irakurtzen), aldizkari honetako zuzendariari karta bat bidaltzen dio, José Díaz de Luijano jaunari hain zuzen ere. Karta honetan, Etxeitak, barkamena eskatzen dio, harpide-kuota ordaintzen atzeratu egin delako. Karta honetan Raimundo de Abaroa eta Emilio Vega jaunen izenak aipatzen dira; badirudi bi gizon hauek, Etxeitari, harpidetza ordainketa soilik urriak 1erainoko egin zegoela abisatu ziotela. Hala ere, Etxeita, ez zen ordura arte enteratu, eta ustez berak eragin ez duen atzerapen honegatik, barkamena eskatzen dio José Díaz de Luijanori. Hau Etxeitak azaroaren 19an berresten du.

1902.eko urtarrilean gauza nahiko bitxia gertatu zitzaion Jose Manuel Etxeitari, azken egunkari hau, *El Mundo Naval Ilustrado*, eta beste aldizkari berri bat, *La Vida Marítima* zirela eta. Jose Manuel Etxeita, lehen esan bezala, lehen egunkariaren harpidedun zen. Hala ere, urtarrilaren 19an, egunkari bakoitzaren zuzendariari karta bana bidaltzen die, eta bertan gertakari adierazgarri batzuen berri ematen du Etxeitak. Mundakarraren idatziari jaramon eginez gero, badirudi, *El Mundo Naval Ilustrado* aldizkaria ez dela gehiago aterako, eta aldizkari honen harpidetza kontuan soberan zituen 15 pezetak, bere

ordez aterako den *La Vida Marítima* aldizkariaren harpidetza formalizatzen erabiltzeko eskatzen du Etxeitak. Hala ere, hila bereko 23an, Avelino de Arostegi jaunari, *El Mundo Naval Ilustrado* aldizkari zuzendariari, gutun bat bidaltzen dio Etxeitak, aurreko operazioa baieztatuz, eta bien artean bidalitako aurreko karta guztiak bidaliz, errakuntzarik egon ez dadin. Hau, urtarrilak 26ko karta baten berriz baieztatzen dio Jose Manuel Etxeitak Avelino de Arostegiri.

1904.eko urtarrilean, Jose Manuel Etxeitak, Espainiako Itsas Ligako Idazkari Nagusiari, 1904.era *Vida Marítima* aldizkari harpidetza egingo duela komunikatzen dio. Urte horretako harpidetza, 20 pezetakoa da (suposa deza-kegu, Espainiako Itsas Liga, *Vida Marítima* aldizkaria argitaratzen duen erakundea dela, edo aldizkari hau, aurreko ligaren “bozeramailea” dela). 1905.eko urtarrilean, *Vida Marítimaren* Administrazioari beste gutun bat bidaltzen dio, urte horretarako harpidetza berrituz. Urte horretan ere, harpidetza 20 xentimotakoa da.

Azkenik, beste egunkari baten harpidedun ere egingo da Jose Manuel Etxeita. Egunkari hau, *Noticiero Bilbaino* izango da. Pedro Albina bilbotarrari bidalitako gutun batean, egunkari horretarako harpidetza egiteko intentzioa adierazten du Jose Manuel Etxeitak. Izan ere, Albinak, diru kopuru bat zion Etxeitari, beraz, diru hori, egunkari honetarako harpidetzarako erabiliko duela adierazten dio Jose Manuel Etxeitak.

Lehen aipatu dugun bezala, Jose Manuel Etxeitararen zaletasunetan garrantzitsuena, itsasontziak ziren. Izan ere, Etxeita, mundakar jator bezala, marinel bokazioko gizona zen. Honez gain, kapitaina ere bazen. Honek erakusten du, Etxeitak, nahiz eta bere jaioterritik urruti bizi eta Administrazioan lan garrantzitsuak eta bizitza eroso bat bermatzeko modukoak bete, bere herriaren nortasuna sekula galdu ez zuela. Etxeita, kapitaina zen, eta honez-kerok, Bizkaiko beste kapitainekiko kontaktua ez zuen sekula galdu. Etxeita itsasgizon profesionalen munduarekin kontaktuan mantenduko zuten bi lagunak, Gonzalo de Artaza eta Venancio de Zarakondegi bilbotarrak izan ziren. Lehenengo kontaktua, 1901.eko otsailak 12an eman zen; egun horretan, Gonzalo de Aratazari bidalitako gutun batean, Espainiar Itsas Merkataritzako Kapitain eta Ofizialen kide egiten dela komunikatzen dio; Gonzalo de Artaza aipatutako elkarte horretako burua zen. Elkarte horretako kide egitearren, elkarteko araudia eta elkartearen aldizkari zen *Boletín Naval* publikazioaren azken hiru aleak jaso dituela komunikatzen du Jose Manuel Etxeitak. Karta honetan, gaiarekin zerikusirik ez badu ere, Mundaka zein modutan definitzen duen kuriosoa da, izan ere bere nobeletan eta euskarazko idatzietan, oso irudi positiboa eskaintzen baitu Jose Manuel Etxeitak. Izan ere *Boletín Naval* aldizkari izateaz eskerrak ematen ditu Etxeitak izan ere, “en estos pueblecitos embrutecidos, sin saber nada de lo que pasa por el Mundo (...)”, informazio iturri bakaretakoa dela esaten baitu. Oso kuriosoa da, Etxeita beste batzuetan bere izate mudakarrak harro agertzen dela jakinda.

1901.eko abuztuan, (karta honen data, hartzailea eta harrera hiria irakurtezinak dira, baina Gonzalo de Artaza bilbotarrari bidalitako karta bat dela

igarri dezakegu), Kapitainen Elkar-teak (aurreko gutunean aipatzen den elkar-tea, Gonzalo de Artaza lehendakari karguan duena), eskola-buke bat erosi nahi duen aferaz mintzatzen da Etxeita. Izan ere, Elkar-te horrek kapitain izan nahi duten ikasleentzat, froga praktikoak antolatzeke nahi du Kapitainen Elkar-teak ontzi hori erosi. Baina arazoa, gaizki ulertu baten erruz, Armadore-en Elkar-te bi halako ontzia eraikitzen ari da. Etxeitaren ustez zentzugabekeria dira, bai hori eta baita Armadoreen Elkar-teekin harreman txarrak izatea (kapi-tainek eta armadoreek elkarren beharra dutelako). Horregatik Etxeitaren ustez, hainbat eta arinen konpondu beharreko afera baten aurrean gaude. Lerro batzuk aurrerago, Elkar-teak enkargatutako bapore batzuetaz ari da Etxeita, bapore horien forma eta neurriak proposatzen.

Abuztuak 13an bere loba Juan Beotegiri karta bat bidaltzen dio. Bertan pilotu izateko praktiketarako aholku batzuk ematen dizkio; badirudi, Beotegi itsas azterketa batzuetan dabilela. Ibilbideen gaineko aholkuak ematen dizkio, Itsas Egunkaria (bitakora) zehatz-mehatz bete dezan esaten dio, eta abar.

Irailak 10ean beste lagun batekin kontaktatzen du Jose Manuel Etxeitak, hain zuzen ere, Juan Miguel de Orkolaga zarauztarrarekin. Badirudi, Orkola-gak, Gallastegi deitutako gizon batek, *Boletín Naval* aldizkarian argitaratutako artikulu baten marrazten zituen Itsas Estimazio Taula batzuek, zein erabilga-rritasun praktiko daukaten jakin nahi duela. Etxeitak, karta luze batean, zuzentasunez eta argitasunez bere zalantzak argitzen dizkio Orkolagari. Etxei-tak dioenaren arabera, badirudi Orkolaga hau, itsasgizona baino gehiago, meteorologoa dela.

Azaroak 1ean karta berri bat idazten dio Gonzalo de Artazari. Badirudi, Kapitainen Elkar-teak, Etxeitari Itsas Nabigazioaren Araudi orokorra idaztea enkargatu diola. Lan hau oso garrantzitsua da, izan ere, Espainiar Estatuan, kapitain izan nahi duen orok, zein baldintza bete behar dituen eta nabiga-tzerakoan zein arauri kasu egin behar dion zehazten baititu. Gainera, Jose Manuel Etxeitaren zaletasun handienetako baten arloko lana denez gero; mundakarraren poza handia dela imajina dezakegu. Horregatik, izendapen honen berria jasota, Etxeitak eskerrak ematen dizkio Artazari. Lan honetan buru-belarri jartzen da Jose Manuel Etxeita, izan ere, abenduak 29an, Gonza-lo de Artazari, Nautika Ikasketei buruzko apunte batzuk bidaltzen dizkio. Lan honen eskubideak Kapitainen Elkar-tearen esku uzten dituela esaten dio Etxeitak Artazari.

Urtarrilak 13an, Itsas Merkataritzaren alorreko Itsas Nabigazioaren Arau-diko proiektua bidaltzen die Etxeitak Gonzalo de Artazari eta oraingoan baita Venancio de Zarakondegiri. Itsasontziek bete beharreko araudiari buruzko lege-proiektua da hau, hala ere makinei buruzko araurik ez du ezartzen, izan ere hori Makinisten Elkar-tearen eskuduntza dela ulertzen baitu Jose Manuel Etxeitak. Gainera Venancio de Zarakondegiri bidalitako kartan, Itsas Eskolako Irakasle Batzordeari buruz eztabaidatzeko konpromisoa hartzen du Etxeitak (badirudi Zarakondegi jauna Kapitainen Elkar-tearen Itsas eskolako irakasle bat dela). Hilabete bereko 17an Artaza jaunari, Tokiko Itsas Batzordeei buruzko Erret-dekretua bidaltzen dio.

1902.eko martxoak 3an, Antonio de Ozamiz bilbotarrari gutun bat bidaltzen dio Etxeitak, Itsas Eskolako Azterketak direla eta. Izan ere Antonio de Ozamiz, Etxeitarren loba Juan Beotegiren irakaslea zen eskola horretan. Badirudi Beotegik, nahiko modu onean hitz egiten ziola Etxeitari bere irakasleaz, beraz, Beotegik eskola horretan ikasgai bat gainditu duenez gero, Etxeitak eskerrak ematen dizkio, Beotegiren formakuntzan izan duen atentzioarengatik. Maiatzak 6an berriz gai berdinez hitz egiten dute Etxeitak eta Ozamizek.

Uztailak 1ean, Rufino de Amusaterekin, Bermeoko Nautika Eskolako Azterketen gaia berriro azaltzen da Etxeitarren ahotan. Izan ere, Félix Macías izeneko ikasle bati buruz ari dira. Félix Macías izeneko ikasle hau, Rufino de Amusaterekin Etxeitarrengana bidali duen ikasle bat da, Etxeitak, Bermeoko Nautika Eskolako irakaslearekin hitz egin dezan, eta honela, ikasle hau prestatu dezaten. Halere, Etxeitak Amusaterekin bidaltzen dion erantzunean, irakaslearekin Macías bati buruz hitz egin duela esaten dio, eta irakaslearen aburuz, Macías jauna ikasteko denbora gutxi baitu ziur asko Iraileko azterketetarako ez dela iritsiko esaten dio Etxeitak Amusaterekin. Bermeoko irakasle honen iragarpenak, zuzenak zirela frogatuko da Etxeitak Amusaterekin irailak 27an bidali zion beste karta batean, Félix Macíasek geografia azterketa gainditu egin duela esaten dio, baina geometriaren ordea, huts egin duela. Etxeitak adierazten duenaren arabera, Azterketako Epaimahaia presionatu egin zuen, baina honek ez omen zituen Etxeitarren eta Macíasen eskaera guztiak entzun. Jose Manuel Etxeitak, azterketaren emaitza jakin orduko Macíasek hartutako erabakia, hau da ikasi beharrean itsasoan praktikak egitearena, begi onez ikusten ez duela adierazten dio Amusaterekin.

Alor honi buruzko azken kartak, 1904.eko irailak 16aren eta azaroaren 30aren artean, Venancio de Zarakondegiri bidaltzen dizkion sei karta dira. Karta hauetan, Itsas Araudiaren gaineko informazioa eskaintzen dio Jose Manuel Etxeitak, hain zuzen ere, Kapitainen araudiari buruz, Araudi honek aurreikusten dituen zigorrei buruz, Itsas Merkataritzarako Nabigazioari buruzko Legedi Orokorrari buruz, Aduanei buruzko Legediari buruz eta Istripuei buruzko Legediari buruz.

Oro har, Jose Manuel Etxeitak, gai honi eman dion garrantzia kontutan izanda, eta zein kargutaraino iritsi zen jakinda, argi dago itsasoaz aparte bizi ezin zen gizon bati buruz ari garela.

Jose Manuel Etxeitarren azken “zaletasuna” landareak ziren. Aurreko biek konparatuta, garrantzi txikikoa bada, hemen ezagutaraztea komeni da. 1904. urtean, Juan Cruz Egileor bilbotarrarekin, landareetaz hitz egiten zuen, izan ere, halako karta batzuetan, bere etxe berriko baratzean, laranjondoak landatzeko intentzioa erakusten dio. Izan ere, 1904.eko otsailaren 4ean, zuhaitz eta landare bariatate bat enkargatzen dio Etxeitak Egileorri (badirudi, botanikan aditua dela Egileor). Hala ere, gutuna irakurtezina da, beraz, ezin dugu zerrenda osoa transkribatu (zerrendan neguko inperialak, bioletak eta kameliak agertzen dira besteak beste). Maiatzak 25ean bidaltzen duen beste gutun batean, beste landare mota batzuk enkargatzen dizkio Etxeitak

Egileorri, hain zuzen ere, arrosa zuri sorta bi, “*Rhododendren calaphgllum*” deritzon bi metrotako hostodun landare motako ale bat, erret-malba (zuri kolorekoa) eta “*aristoloquia siphon*”. Ekainak 1ean zerrenda hau osatu egiten du Jose Manuel Etxeita mundakarrak, zerrenda berri honetan, 12 geranio, eulalia bi eta “*flibiscum grandiflorum*” aurrekoei gehitzen baitizkie Etxeitak. Ikusten dugun bezala, Jose Manuel Etxeitak arreta handia jartzen zion bere etxeko belartzaren itxurari, lore mota eta sortak berak aukeratzearainoko punturaino, botanikoaren aholkuei kasu egin gabe. Zeregin honetan jarri izan duen arretarengatik, atzeman dezakegu, botanikaren gaineko zaletasun handia zuela Jose Manuel Etxeitak.

JOSE MANUEL ETXEITA ETA BERE LAGUNAK

Jose Manuel Etxeita, bere komunitatean, eragin handia zuen pertsona bat zen. Izan ere, eragin hori askotan sumatua izan da, bai bere posizio sozial edota politikorengatik, edo baita bere akzio kopuru eta interesengatik. Alta, Etxeita moduko pertsona batengan (giro xume batetan jaioa eta hezia eta gero-ra Administrazioan karrera arrakastatsua egin izan duena), bere inguruan zuen eragin eta errespetu horrek, nolabaiteko posizioaren jabe izatea dakar. Izan ere, halako karrera bat egiteak, bi gauza dakartza gehienetan, alde batetik kontaktuak eta beste alde batetik ingurukoaren artean errespetua. Modu honetan, Jose Manuel Etxeitaren lagunek; mesede eta fabore ezberdinak eskatuko ziotela pentsatzea ez da batere zentzugabekoa; Etxeita berak, bere eragina eta prestigioa bere lagunengatik alde erabili zuela pentsatzea arraroa ez den bezala.

Hauetako lagun batzuk, Itsas Konpainian aurki ditzakegu. Izan ere, Jose Manuel Etxeitak, Konpainiaren Administrazioaile Juan T. McLeodekin harreman oso ona zuen, eta horrenbestez akzionista xume bat baino “zerbait gehixea-go” zela iragarri dezakegu. Adibidez, Itsas Konpainian lan egitearen aldeko gomendapen asko emango ditu Etxeitak. Horietako bat, 1901.eko urtarrilean, Rafael Lete botikaria da, Etxeitaren lagun mina zen Eduardo Leteren familiakoa. Beste horrenbeste egiten du 1901.eko abuztuaren 9an, Raimundo de Abaroa koinatuaren bidez, Itsas Konpainian, Jose Sainz kokatzen saiatzen denean. 1904.ean aldiz, Lucio Zabala aurkeztuko dio Etxeitak McLeod-i.

Halere, Juan T. McLeod, 1904.eko urrian Administrazioaile kargutik kendua izango da eta bere tokia Manuel M Rincón jaunak beteko du. Konpainiako barne tentsioak izango ziren McLeod-en bazterketaren errudun, izan ere bazirudien McLeod-en osasuna ere ez zela guztiz ona. Hala ere, badirudi Rincónen izendapena ondo hartzen duela Etxeitak, erabaki hori hartzean Konpainiak “asmatu” egin zuela esanaz. Hala ere, bere akzioak zaintzea estimatuko lukeela esaten dio Etxeitak Rincóni, bere interesen babesle izatea nahiko lukeela zeharka iradokitzen dio.

Jose Manuel Etxeitaren lagunengatik zirkulua hau dela esan dezakegu: alde batetik *Echeita y Portuondo* elkarteko kideak, Ceferino Portuondo, León Longa, Cruz Larrinaga eta bere senar Teodoro Arana. Beste alde batetik Itsas Konpainiako agintari nagusiak, Juan T. McLeod eta Raimundo Abaroa. Bere

abokatuak Rufino de Amusatagi eta Francisco Pleguezuelo ere ezin ditugu ahaztu, ezta ere Liverpooleko Ojinagatarrak. Eta gero, modu zabalago batean, Itsas Konpainiako beste akziodunak, José Bedoya, Antonio Ozamiz, Félix Larrinaga, Tirso Lizarraga, Francisco de la Pedrosa eta abar. Modu ezkuuago batean, baina ez garrantziz txikiagoan, Eduardo Lete aurkitzen dugu. Honek Etxeitaren konfidentzia batzuk jasoko ditu, beraz Etxeitarekin harreman oso ona duela atzeman dezakegu.

Hiriburuko pertsonen artean ere baditu kontaktuak Etxeitak, bai berak zuzenean, zein Rufino de Amusatagi abokatuari esker. Izan ere, garai horretako bi pertsonai militar garrantzitsuenak, Ramon Blanco eta Valeriano Weyler, Etxeitak "lagun" bezala tratatzen ditu. Esan beharra dago, bi hauek Filipinetan Etxeitarekin egon zirela. Halere, hauekin izandako harremanak, Jose Manuel Etxeitaren harremanak noraino iristen zirenen ideia bat ematen digute.

Bestalde Jose Manuel Etxeitak, Gernikako testamentu-notaritzako Pedro P. Areitioren aurrean, bere herrikide batzuen testamentuak kudeatzerakoan bitartekari lanak egin dituela agertzen da bere gutunetan. Honek Etxeitaren eraginari buruz hitz egiten digu.

ONDORIOAK

Gutuneria hau aztertuz, Jose Manuel Etxeitaren soslai bat egin dezakegu. Egia esan, Jose Manuel Etxeita honek, bere nobeletan agertzen diren paisai naïf eta ximpleekin zerikusi gutxi dauka. Une oro, boterearekin kontaktuan dagoen Jose Manuel Etxeita bat auzaltzen zaigu, akziodun bezala edota Gobernadoreekin eta Ministroekin mesedeak elkartrukatuz. Nahiko materialista aurkitzen dugu Jose Manuel Etxeita, bere akzioei beti etekin gehiena atera nahian, honetaz asko kezkatuz.

Jose Manuel Etxeitaren beste aurpegia, famili eta lagun arteko harremanak ditugu. Izan ere, gutuneria honetan, beti agertzen zaigu, bere familiatz oso kezkatuta dagoen eta goraintziak bidaltzea inoiz ahazten ez zaion Jose Manuel Etxeita bat. Oso pertsona adeitsua ematen du.

Atal honen hasieran Jose Manuel Etxeitaren gutuneriaren laburpen eta sailkapen ximple bat egin dugu. Bukaeran, niri datu kurioso bat iruditu zaidana aipatuko dut, karta guztiak baita bere familiari bidalitakoak ere, erdaraz auzaltzen zaizkigu. Nahiko arraroa egin zait, gero euskal literaturan trebatuko den idazle batetan, halere, orduko hizkuntz aniztasunaren inguruan zeuden lege nahiko zapaltzaileek honetan zerikusia izan zezaketen.

Bukatzeko, esan beharra dago, Etxeitaren gutuneriak, bere bizitza profesionalaz nahiko gauza argitzen dituela. Izan ere, orain arte ezaguna ez zen mundakarraren aurpegi bat ezagutzeko parada ematen du. Etxeitaren gutuneria irakurtzeak, lan honen egileari erabateko garrantzizkoa iruditu zaio, eta ezinbestekoa Jose Manuel Etxeitaren alderdi hau ezagutu nahi izanez gero, are gehiago Etxeitari buruzko dokumentazioa zein urria den kontutan hartuta.